Ha da aclararse que este decreto no constituye el exclusivo desarrollo legislativo de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El Decreto supera al concepto de los interesados y afecta a la ciudadanía en general; si bien, a lo largo del texto, existen artículos concretos sobre los interesados en el procedimiento.

El marco jurídico actual pretende dar un salto cualitativo en el proceso de implantación y despliegue de la administración electrónica y sustituir del papel por el soporte electrónico en todos los procedimientos administrativos, por lo que la propia Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas abre la opción de extender dicha obligación a otros supuestos.

El presente Decreto hace extensiva dicha obligación, de forma adecuada y proporcionada, a otros supuestos como las personas empresarias individuales o autónomas, el estudiantado universitario con motivo de su condición académica, y las personas que participen en procesos selectivos para el acceso a cuerpos o escalas y/o categorías laborales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los trámites relacionados con dicho proceso, de acuerdo con lo que establezcan las convocatorias respectivas así como las personas de las bolsas de trabajo de personal temporal de cualquier ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En todos los casos, se trata de colectivos en los que la dedicación profesional y la capacidad técnica está ligada al uso de las tecnologías, tratándose de una herramienta que utilizan con asiduidad y/o es parte indispensable de su trabajo; en los que el uso de estos medios además de sobradamente conocido es natural y forma parte de su día a día; disponen de la capacidad económica necesaria o, incluso, en los que ya existe la obligación de realizar trámites administrativos por medios electrónicos en el ámbito de hacienda.

Dekretuaren funtsezko alderdi bat da herritarrei arreta emateko gobernantzari buruzko titulua; izan ere, hori gabe ez litzateke posible izango dekretuaren xedeak eta helburuak gauzatzea. Zehazki, gobernantza publikoaren arloan, oro har, eta herritarrei, administrazio-informazioari eta, bereziki, administrazio elektronikoari arreta emateko sustapenerako eta koordinaziorako erreferente zuzendari eta teknikoaren kokapen esplizitua Eusko Jaurlaritzako sailetan eta haren organismo eta erakundeetan.

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu dira erregulazio onaren printzipioak –39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeko bidearen eta gobernu onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 62. artikuluan ezarriak–; halaber, premia-printzipioari erantzuten dio dekretuak, lortu nahi diren helburuak betetzeko behar den erregulazioa jasotzen du, hura lortzeko tresnarik egokiena da, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Hori dela eta, ...(e)ko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz eta Gobernu Kontseiluak ...(e)ko ...aren ..(e)(a)n egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Un aspecto absolutamente esencial del Decreto, sin el cual no se posibilitaría de hecho la materialización de sus fines y objetivos es el título dedicado a la gobernanza de la atención a la ciudadanía. En concreto, la explícita ubicación del referente directivo y técnico para el impulso y la coordinación en materia de gobernanza pública en general y la atención a la ciudadanía, información administrativa y Administración electrónica en particular en los departamentos del Gobierno Vasco y sus organismos y entes.

Este Decreto se ha elaborado de conformidad con los principios de buena regulación previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015 y en el artículo 62 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, responde al principio de necesidad, contiene la regulación necesaria para atender las finalidades perseguidas, es el instrumento más adecuado para garantizar su consecución, y es coherente con el resto del ordenamiento jurídico.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día de de,

DISPONGO

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Dekretuaren xedea.

1. Dekretu honen xedea da hauek arautzea: batetik, herritarrei eman beharreko arreta eta informazioa; bestetik, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea, bai zerbitzu publikoetara iristeko bai administrazio-prozedurak izapidetzeko.

Halaber, zerbitzua emateko behar den administrazio-antolaketa eta hari dagozkion bitartekoak eta eginkizunak ezartzea ere bada dekretu honen xedea.

2. Dekretu honen ondorioetarako, hau da herritarrentzako arreta: sektore publiko autonomikoak antolatzen dituen prozesu eta bitartekoen multzoa, herritarrek izan dezaten eskubideak baliatu, betebeharrak bete eta zerbitzu publikoak irispidean izateko aukera emango dien harreman-gune eraikitzaile bat. Zehazki, herritarrentzako arretaren barruan hauek sartzen dira: harrera eta orientazioa; administrazio-informazioa; dokumentuak bete, jaso eta erregistratzea; eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko laguntza eta orientazioa ematea, eta kexak eta iradokizunak kudeatzea.

3. Administrazio publikoak teknologia berrien erabilera bultzatuko du herritarrei arreta emateko.

2. artikulua. Herritartasunaren kontzeptua.

Dekretu honen ondorioetarako, herritartzat hartuko dira pertsona fisikoak, juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, aurreko paragrafoetan aipatutako erakundeekin dituzten harremanetan.

3. artikulua. Dekretuaren aplikazio-eremua.

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto del decreto.

1. El presente Decreto tiene por objeto la regulación de la atención e información a la ciudadanía, el derecho de la misma a relacionarse con en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi por medios electrónicos para acceder a los servicios públicos y para la tramitación de los procedimientos administrativos.

Así mismo, es objeto del presente Decreto la organización administrativa necesaria para hacer efectiva su prestación y los medios y funciones que correspondan.

2. A los efectos de este Decreto, se entiende por atención a la ciudadanía el conjunto de procesos y medios que el sector público autonómico organiza para crear un espacio constructivo de relaciones que permitan a la ciudadanía el ejercicio de sus derechos, el cumplimiento de sus obligaciones y el acceso a los servicios públicos. En concreto, la atención a la ciudadanía comprende el recibimiento y orientación, la información administrativa, la cumplimentación, recepción y registro de documentos, la asistencia y orientación en el ejercicio de sus derechos y cumplimiento de sus obligaciones y la gestión de quejas y sugerencias.

3. La Administración pública impulsará el empleo de las nuevas tecnologías para la atención a la ciudadanía.

Artículo 2. Concepto de ciudadanía.

A los efectos del presente Decreto se entiende por ciudadanía a las personas físicas, jurídicas y entes sin personalidad jurídica en sus relaciones con las entidades incluidas en los apartados anteriores.

Artículo 3. Ámbito de aplicación del decreto.

1. Dekretu hau, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari aplikatuko zaio, hargatik eragotzi gabe bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

2. Dekretu honen I., II., IV., V., VI, VII. eta VII. tituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionaleko organismo autonomoei eta zuzenbide pribatuko ente publikoei ere aplikatuko zaizkie.

Gainera, I., II., VI. eta VII. tituluak, IV. tituluko I. kapitulua eta V. tituluko VI. kapitulua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren sektore publiko osoari aplikatuko zaio.

3. Hezkuntzaren, osasunaren eta justiziaren eremuetan, herritarrei arreta emateko ekintzak araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, eta osagarri gisa aplikatuko dira dekretu honetan jasotako xedapenak.

4. artikulua. Dekretuaren helburuak.

Hauek dira dekretu honen helburuak:

- a) Herritarrentzako arreta-zerbitzu kalitatezko, integral eta multikanala eskaintzea.
- b) Herritarrek eskubideak balia ditzaketela bermatzea eta salbuespeneko egoeretan eskubide horiek babesteko kontuan hartu beharreko alderdiak arautzea.
- c) Enplegatu publikoek eta herritarrek arreta-harremanetan izan behar dituzten eginbeharrak ezartzea.
- d) Herritarrei arreta emateko modalitate eta mailak ezartzea, eta administrazio-organismo guztien erantzunkidetasuna finkatzea zerbitzuan dagokien mailaren arabera.
- e) Informazioaren oinarrizko alderdiak ezartzea herritarrentzako arretan, hargatik eragotzi gabe publikotasun aktiboari eta informazio publikoa

1. Este Decreto será de aplicación con carácter general a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición adicional segunda.

2. Los Títulos I, II, IV, V, VI, VII y VIII del presente Decreto también son de aplicación a los Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los Títulos I, II, VI y VII, el capítulo I del Título IV y el capítulo VI del Título V le es de aplicación, además, a todo el sector público de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3. Las acciones de atención a la ciudadanía en los ámbitos de la educación, la salud y la justicia se regirán por su normativa específica y serán de aplicación supletoria las previsiones contenidas en el presente Decreto.

Artículo 4. Finalidades del decreto.

El presente Decreto tiene las siguientes finalidades:

- a) Prestar un servicio de atención a la ciudadanía de calidad, integral y multicanal.
- b) Garantizar el ejercicio de los derechos de la ciudadanía y regular los aspectos a considerar en situaciones excepcionales para salvaguardar esos derechos.
- c) Establecer los deberes del personal empleado público y de la ciudadanía en sus relaciones de atención.
- d) Establecer las modalidades y los niveles de atención a la ciudadanía y co-responsabilizar a todos los órganos administrativos según el nivel que les corresponda en la prestación de dicho servicio.
- e) Establecer los aspectos básicos de la información en la atención a la ciudadanía sin perjuicio de la normativa sobre publicidad activa

irispidean izateko eskubidea baliatzeari buruzko araudia.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak Interneten duen presentzia, eredia eta elementu komunak arautzea, eta horiek kudeatzeko eginkizunak eta erantzukizunak ezartzea.

g) Administrazio elektronikoaren zerbitzu komunak eta alderdi nagusiak arautzea.

h) Arreta-kanal eta -modalitate ohikoenen alderdi nagusiak arautzea eta, aurrerapen teknologikoen arabera, beste kanal batzuk aurreikustea eta arian-arian gaitzea.

i) Webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasuna bermatzea.

j) Zerbitzu publikoen eta administrazio-prozeduren ikuspegia indartzea herritarrek erdigunean jarrita.

k) Administrazio-organo eskudunaren gaitasuna eta baliabideak doitu eta egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailek sortu eta herritarrek eskatzen dituzten aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta-zerbitzuen arabera.

l) Proaktiboki kontsultak eta zerbitzuak pertsonaliza daitezen sustatzea.

m) Herritarrentzako arretaren kalitaterako eta etengabeko hobekuntzarako tresnak ezartzea; bereziki, kexa eta iradokizunen sistema.

n) Herritarrei arreta emateko erantzukizunen antolamendua eta banaketa ezartzea, bai eta jarraipen-, kontrol- eta koordinazio-mekanismoak ere.

o) Erakundeen arteko elkarlanerako mekanismoak ezartzea herritarrentzako arretaren arloan.

y el ejercicio del derecho de acceso a la información pública.

f) Regular la presencia en Internet de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el modelo, sus elementos comunes y establecer las funciones y responsabilidades de su gestión.

g) Regular los servicios comunes de la Administración electrónica y los principales aspectos de la misma.

h) Regular los principales aspectos de los canales y modalidades de atención más frecuentes y prever y habilitar progresivamente nuevos canales en función de los avances tecnológicos.

i) Garantizar la accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles.

j) Potenciar una visión de los servicios públicos y procedimientos administrativos centrada en la ciudadanía.

k) Ajustar y adaptar la capacidad y recursos del órgano administrativo competente a la demanda de los servicios de atención presencial y telefónica por la ciudadanía generada por los departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

l) Potenciar la personalización de las consultas y servicios de forma proactiva.

m) Establecer los instrumentos para la calidad y mejora continua de la atención a la ciudadanía y, específicamente, el sistema de quejas y sugerencias.

n) Establecer la organización y distribución de responsabilidades en atención a la ciudadanía, así como los mecanismos de seguimiento, control y coordinación.

o) Establecer mecanismos de colaboración interinstitucional en materia de atención a la ciudadanía.

5. artikulua. Herritarrentzako arretaren printzipio orokorrak.

Herritarrentzako arreta, oro har, Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluan xedatutako printzipioen eta beste printzipio hauen arabera arautuko da:

- a) Objektibotasuna eta erantzukizuna.
- b) Begirunea, ardura eta errespetu handiena izatea arreta-zerbitzuetan eta, oro har, pertsonetik harremanetan.
- c) Herritarrek erdigunean dauzkan kalitateko zerbitzua izatea, arreta-sistema integral, irisgarri eta multikanalak hedatuta.
- d) Arintasuna, sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna izatea bulegoetan, kanaletan, hizkeran, prozesuetan, izapideetan eta atazetan.
- e) Informazioa gardena, objektiboa, egiazkoa, osoa, autentikoa, eguneratua, ulerterraza eta homogeneoa izatea, transmisio-bidea edozein dela ere.
- f) Irisgarritasuna, berdintasuna eta diskriminazio-eza izatea, informazioaren eta herritarrentzako arreta-zerbitzuen irispidean; bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonentzat eta adinekoentzat.
- g) Erabilerraza izatea; horretarako, zerbitzu elektronikoen diseinuak erabiltzaileak jarri behar ditu erdigunean, eta zerbitzua erabiltzeko behar den jakintza-mailak ahalik eta txikiena izan behar du.
- h) Pertsonalizazioa eta proaktibitatea izatea herritarrentzako arretan; horretarako, Administrazioak gai izan behar du, zerbitzuaren azken erabiltzaileak zenbat dakien kontuan hartuta eta hortik abiatuta, aurrez betetako zerbitzuak emateko eta sortzen diren premiei aurrea hartzeko.

Artículo 5. Principios generales de la atención a la ciudadanía.

La atención a la ciudadanía se regirá, con carácter general, por los principios previstos en el artículo 103 de la Constitución Española y por los siguientes principios:

- a) Objetividad y responsabilidad.
- b) Deferencia, esmero y máximo respeto en la prestación de los servicios de atención y, en general, en el trato con las personas.
- c) Servicio de calidad orientado a la ciudadanía mediante el despliegue de sistemas de atención integral, accesible y multicanal.
- d) Agilidad, simplicidad, claridad y proximidad a la ciudadanía en dependencias, canales, lenguaje, procesos, trámites, y ejecución de tareas.
- e) Transparencia, objetividad, veracidad, integridad, autenticidad, actualización, facilidad de comprensión y homogeneidad de la información con independencia de su medio de transmisión.
- f) Accesibilidad, igualdad y no discriminación en el acceso a la información y a los servicios de atención a la ciudadanía, en particular de las personas con discapacidad y de las personas mayores.
- g) Facilidad de uso, que determina que el diseño de los servicios electrónicos esté centrado en las personas usuarias, de forma que se minimice el grado de conocimiento necesario para el uso del servicio.
- h) Personalización y proactividad en la atención a la ciudadanía, entendido como la capacidad de la Administración para que, partiendo del conocimiento adquirido de la persona usuaria final del servicio, proporcione servicios pre-cumplimentados y se anticipe a las posibles necesidades de los mismos.

- i) Elkarrengarritasuna izatea; horretarako, informazio-sistemek eta, orobat, sistema horien euskarri diren prozedurek gai izan behar dute datuak partekatzeko eta informazioa trukatzeko.
- j) Proporzionaltasuna izatea; hori dela eta, izapide edo jarduketan izaera eta ezaugarrien arabera berme eta segurtasun-neurriak baino ez dira eskatuko.
- k) Etengabeko egokitzapena eta berrikuntza aldaketa teknologikoen eta sareko kudeaketa-ereduen arabera.
- l) Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa.
- m) «www.euskadi.eus» webgune komuna integratu, pertsonalizatu, hierarkizatu eta segmentatzea.
- n) Administrazio-egitura guztien erantzunkidetasuna, bakoitzari dagokion arretan mailan.
- o) Lankidetzan, elkarlanean eta koordinaturik aritzea gainerako administrazio publikoekin eta, bereziki, EAEko foru- eta toki-entitateekin, herritarrentzako arretan eta elkarrengarritasuna sustatzeko orduan.
- p) Ahal dela, herritarren premiei eta eskaerei aurrea hartzea.
- q) Emaizten programazioa, plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egitea, etengabe hobetzeko.
- r) Komunikazio elektronikoaren sistemen eta teknologien neutraltasun teknologikoa eta aurrerapenen arabera moldagarritasuna. Horretarako, sektore publikoak estandar irekiak erabiliko ditu, bai eta, hala badagokio eta osagarri gisa, gehien erabiltzen diren estandarrak ere.
- i) Interoperabilidad, entendido como la capacidad de los sistemas de información y, por ende, de los procedimientos a los que éstos dan soporte, de compartir datos y posibilitar el intercambio de información entre ellos.
- j) Proporcionalidad, en cuya virtud sólo se exigirán las garantías y medidas de seguridad adecuadas a la naturaleza y circunstancias de los distintos trámites y actuaciones.
- k) Innovación y adaptación permanente a los cambios tecnológicos y a los modelos de gestión en red.
- l) Confidencialidad y protección de datos de carácter personal.
- m) Integración, personalización, jerarquización y segmentación del espacio web común «www.euskadi.eus».
- n) Co-responsabilidad de todas las estructuras administrativas en el nivel de atención que les corresponda.
- o) Cooperación, colaboración y coordinación con el resto de las administraciones públicas y, en particular, con las entidades forales y locales vascas en la atención a la ciudadanía y fomento de la interoperabilidad.
- p) Anticipación, en la medida de lo posible, a las necesidades y demandas de la ciudadanía.
- q) Programación, planificación, seguimiento y evaluación de los resultados para la mejora continua.
- r) Neutralidad tecnológica y de adaptabilidad al progreso de las tecnologías y sistemas de comunicaciones electrónicas. A estos efectos, el sector público utilizará estándares abiertos, así como, en su caso y de forma complementaria, estándares que sean de uso generalizado.

Bitarteko elektronikoaren bidez komunikatzeko erabili beharreko tresnek eta gailuek eta haien ezaugarri teknikoek ez dute diskriminaziorik

Las herramientas y dispositivos que deban utilizarse para la comunicación por medios electrónicos, así como sus características

eragin behar, eskuragarri egongo dira guztiontzat, eta bateratu ahal izango dira erabilera orokorreko produktu informatikoekin.

6. artikulua. Herritarrei arreta emateko eginbehar orokorra.

Agintari eta enplegatu publiko guztiek herritarrei arreta emateko eginbeharra dute, eta behar duten arreta eman behar diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.

técnicas, serán no discriminatorios, estarán disponibles de forma general y serán compatibles con los productos informáticos de uso general.

Artículo 6. Deber general de atención a la ciudadanía.

Todas las autoridades y personal empleado público tienen el deber de atender a la ciudadanía, facilitándoles la atención precisa para el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones.

II. TITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

I. KAPITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

7. artikulua. Herritarren eskubideak.

1. Dekretu honen ondorioetarako, eta hargatik eragotzi gabe aplikatzekoa den araudian xedatutakoa, herritarrek eskubide hauek dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekiko harremanetan:

- a) Kalitateko zerbitzu publikoak emango zaizkiola bermatuta izatekoa, hurbiltasunean, efizientzian, efikazian eta gardentasunean oinarrituta, eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioan parte hartzekoa, horretarako diseinatutako mekanismoen bitartez, zerbitzu publikoen prestazioan erantzukizun eta kalitate handiagoa izateko xedez.
- b) Ematen zaion arretari dagokionez, zer eskubide eta eginbehar dituen jakitekoa, eta aholkularitza eta, hala badagokio, laguntza jasotzekoa eskubideak eraginkortasunez baliatzeko eta zerbitzu publikoak behar bezala hartzeko.

TÍTULO II. DERECHOS Y DEBERES DE LA CIUDADANÍA

CAPÍTULO I. DERECHOS Y DEBERES DE LA CIUDADANÍA

Artículo 7. Derechos de la ciudadanía.

1. A los efectos del presente Decreto, y sin perjuicio de lo previsto en la normativa que resulte de aplicación, la ciudadanía, en sus relaciones con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tiene los siguientes derechos:

- a) A que se le garantice la prestación de unos servicios públicos de calidad sobre la base de la proximidad, la eficiencia, la eficacia y la transparencia y a participar en la evaluación de la calidad de los servicios públicos, a través de los mecanismos diseñados a tal efecto, en la búsqueda de una mayor responsabilidad y calidad en la prestación de los servicios públicos.
- b) A conocer cuáles son sus derechos y deberes en relación con la atención que se le presta y a ser asesorada y, en su caso, ayudada, para el efectivo ejercicio de sus derechos y la correcta recepción de dichos servicios públicos.

- c) Agintari eta enplegu publikoen laguntza jasotzekoa eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabili eta arreta hizkuntza horietan jasotzekoa, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituzten legeen arabera.
- e) Arreta ahalik eta lasterren jasotzeko eskubidea.
- f) Agintari eta enplegu publikoek honela tratatua izatekoa: errespetuz, begirunez, berdintasunez eta inpartzialtasunez, eta jaiotzaren, sexuaren, arrazaren, jatorriaren, erlijioaren, sexu-orientazioaren, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialen ondoriozko bereizkeriarik gabe.
- g) Ematen den arreta-zerbitzuaren agintariak eta langile erantzuleak identifikatzeko, erabakitzen den moduan.
- h) Administrazioarekiko harremanak izateko arreta-modalitatea aukeratzeko, baldin eta dekretu honetan, administrazio-prozedura erkidearen arauetan edo prozeduraren araudi espezifikoan ez bada xedatzen nahitaez baliabide jakin bat erabili behar dela.
- i) Ordezkaritza bidez jardutekoa.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekiko harremanetan, bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzekoa.
- k) Webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak irispidean izatekoa.
- l) Modu aktiboan argitaratutako informazio publikoa eskuratzea.
- m) Egia eta kalitateko informazio publikoa eskatu eta jasotzekoa, barnean hartuta artxibo eta erregistroetarako irispidea, horretarako interes legitimorik behar izan
- c) A que las autoridades y personal empleado público le facilite el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones.
- d) A utilizar y ser atendida en las lenguas oficiales del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de acuerdo con la legislación que regula el ejercicio de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.
- e) A ser atendida en el menor tiempo posible.
- f) A ser tratada por las autoridades y personal empleado público con respeto, consideración, en condiciones de igualdad e imparcialidad y sin discriminación por razón de nacimiento, sexo, raza, origen, religión, orientación sexual, opinión o cualquier otra circunstancia personal o social.
- g) A identificar a las autoridades y al personal bajo cuya responsabilidad se presta el servicio de atención, en la forma que se determine.
- h) A elegir la modalidad de atención para relacionarse con la Administración, salvo que resulte obligatoria la utilización de un medio concreto en virtud de lo dispuesto en este Decreto, en la normativa de procedimiento administrativo común o específica del procedimiento de que se trate.
- i) A actuar por medio de representante.
- j) A ser asistida en el uso de medios electrónicos en sus relaciones con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- k) A la accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles.
- l) A acceder a la información pública que haya sido publicada de forma activa.
- m) A solicitar y recibir la información pública veraz y de calidad, incluyendo el acceso a los archivos y registros sin que para ello necesite ostentar un interés legítimo y sin perjuicio de

gabe eta hargatik eragotzi gabe legeek jarritako mugak, ezarritako gehieneko epeetan, eta, halaber, hala badagokio, informazioa zergatik ez zaion ematen jakitekoa.

- n) Administrazio publikoarekin irispide-puntu elektroniko orokor baten bitartez komunikatzekoa.
- o) Eskatutako informazioa, orientazioa edo kudeaketa jasotzekoa, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren eskumenekoa bada.
- p) Informazioa eta arreta modu argi eta ulergarrian jasotzekoa, hizkera argia erabiltza modalitate, bitarteko, kanal eta euskarri guztietan.
- q) Izapide eta prozedura sinpleak izatekoa eta hizkera argiaren irizpideen arabera diseinatutako formulario, instantzia eta eskabide sinpleak erabiltzekoa.
- r) Idazkiak, eskabideak eta komunikazioak aurkeztekoa.
- s) Prozedurei aplikatu beharreko arauetan eskatzen ez diren dokumentuak edo dagoeneko administrazio publikoen esku daudenak ez aurkezteko eskubidea.
- t) Datu pertsonalen babesa, segurtasun-bermea eta konfidentzialtasuna izatekoa eta, bereziki, datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan ezarritako helburuetarako soilik eskatu eta tratatzekoa, indarreko legeak erabat errespetatuta. Nolanahi ere, herritarrei arreta emateko sistema integralaren bidez, pertsonak noiznahi eta zuzenean baliatu ahal izango dituzte datuak irispidean izan, zuzendu eta ezerezteko eskubideak eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea.
- u) Edozein kontsultaren erantzuna jasotzekoa eta eskariak egiteko eskubidea baliatzekoa.

las limitaciones contempladas en la legislación dentro de los plazos máximos establecidos y, en su caso, a conocer los motivos por los cuales no se le facilita la información.

- n) A comunicarse con la Administración pública a través de un Punto de Acceso General Electrónico.
- o) A recibir la información, orientación o la gestión solicitada, siempre que sea competencia de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- p) A recibir la información y atención de forma clara y fácilmente comprensible, mediante la utilización de lenguaje claro en todas las modalidades, medios, canales y soportes.
- q) A la simplicidad de los trámites y procedimientos y a formularios, instancias y solicitudes sencillos, diseñados con criterios de lenguaje claro.
- r) A presentar escritos, solicitudes y comunicaciones.
- s) A no presentar los documentos no exigidos por las normas aplicables a los procedimientos o que se hallen ya en poder de las Administraciones Públicas.
- t) A la protección, garantía de la seguridad y confidencialidad de los datos de carácter personal, y en particular a que estos sean únicamente exigidos y tratados para las finalidades previstas en el procedimiento o actuación que se trate, con pleno respeto a la legislación vigente. En todo caso, la persona podrá ejercitar en cualquier momento sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición directamente a través del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía.
- u) A recibir contestación a cualquier consulta y ejercer el derecho de petición.

v) Kexak eta iradokizunak aurkeztekoa eta erantzuna ahalik eta lasterren jasotzekoa.

w) Legeek aitortzen dieten beste edozein eskubide.

2. Eskubide horiek ez dituzte eragozten administrazio-prozeduran interesdun direnei legeek aitortutako gainerako eskubideak.

8. artikulua. Herritarren eginbeharrak.

Dekretu honen ondorioetarako, eta hargatik eragotzi gabe aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoa, herritarrek betebeharrak hauek dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekiko harremanetan:

a) Zerbitzuen ordutegiak eta funtzionamendua errespetatzea, betiere langileen argibideak kontuan hartuta.

b) Aurrez aurreko hitzordu-egun eta -orduetan puntual bertaratzea, eta abisatzea joan ezin bada.

c) Une oro errespetatzea herritarrei arreta emateko eta erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetako arauak.

d) Espazio, gela, instalazio eta ekipamendu publikoak zaintzea.

e) Jendetasunez eta errespetuz jokatzeko enplegatu publikoekin eta eraikin publikoetan une bakoitzean dauden gainerako erabiltzaileekin.

f) Elkarlanean aritzea enplegatu publikoekin; hau da, egiazko datuak, zehatzak, argiak eta irakurterazak ematea, bai identifikatzekoak bai gaiari buruzkoak, zerbitzua behar bezala emateko behar diren heinean.

g) Administrazioak jartzen dituen kanal, bitarteko eta tresnak erabiltzea Administrazioarekin

v) A presentar quejas y sugerencias, y ser contestadas en el menor tiempo posible.

w) Cualesquiera otros que les reconozcan las leyes.

2. Estos derechos se entienden sin perjuicio del resto de los derechos reconocidos en la legislación referidos a las personas interesadas en el procedimiento administrativo.

Artículo 8. Deberes de la ciudadanía.

A los efectos del presente Decreto, y sin perjuicio de lo previsto en la normativa que resulte aplicación, la ciudadanía, en sus relaciones con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tiene las siguientes obligaciones:

a) Respetar los horarios y funcionamiento de los servicios, atendiendo en cualquier caso a las indicaciones del personal.

b) Ser puntual y acudir el día y en la hora de la cita presencial y avisar en caso de no poder acudir a la misma.

c) Respetar en todo momento las normas de las oficinas de atención a la ciudadanía y de asistencia en materia de registro.

d) Cuidar los espacios, dependencias, instalaciones y equipamientos públicos.

e) Mantener en todo momento una actitud educada y respetuosa hacia el personal empleado público y el resto de personas usuarias que se encuentren presentes en cada momento en las dependencias públicas.

f) Colaborar con el personal empleado público, facilitándole con veracidad, exactitud, claridad y legibilidad los datos de identificación o del contenido de la materia de que se trate y que sean necesarios para la correcta prestación del servicio.

g) Utilizar los canales, medios e instrumentos facilitados por la Administración para

berarekin behar bezala harremanetan jartzeko, eta behar diren harreman-datuak ematea.

relacionarse con la misma de forma correcta y proporcionar los datos de contacto necesarios.

h) Lortutako informazioa berrerabiltzeko indarrean dauden legeetan ezarritako betebeharrak betetzea.

h) Cumplir con las obligaciones previstas en la legislación vigente respecto a la reutilización de la información obtenida.

i) Zerbitzu publiko digitalak egoki eta arduraz erabiltzea, fede onaren eskakizunen arabera, administrazio-eskumenen erabilera oztopatu gabe.

i) Utilizar los servicios públicos digitales de forma adecuada y diligente, conforme a las exigencias de la buena fe, sin obstaculizar el ejercicio de las competencias administrativas.

9. artikulua. Dokumentuak ez aurkezteko eskubidea.

Artículo 9. Derecho a no aportar documentos.

1) Administrazioak administrazio-prozeduretako interesdunek dokumenturik ez aurkezteko duten eskubidea gauzatuko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako kasuetan.

1) La Administración hará efectivo el derecho de las personas interesadas en los procedimientos administrativos a no aportar documentos en los casos previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2) Prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak berak sartuko ditu datuak prozeduran, baldin eta datu horiek badauzka edo haietara irispide elektronikoa badauka Organo lagatzailearen fitxategietan jasota geratu behar du organo lagapen-hartzailea datu edo dokumentu horietan sartu dela.

2) Si el órgano administrativo que tramita el procedimiento posee los datos o documentos o tiene acceso electrónico a los mismos, los incorporará al procedimiento. En los ficheros del órgano cedente quedará constancia del acceso a los datos o documentos efectuado por el órgano cesionario.

3) Prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak datuak edo dokumentuak eduki ezean, badauzkan organoari eskatuko dizkio, eta elektronikoki eskuratu beharko ditu sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan egindako kontsulten bidez.

3) Si el órgano administrativo que tramita el procedimiento no posee los datos o documentos, los pedirá al órgano que los tenga, debiendo recabarlos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto.

4) Salbuespen gisa, prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak ezin baditu datuak edo dokumentuak lortu, interesdunari jakinarazi eta arrazioa azalduko dio, berak aurkez ditzan, kasuan kasuko prozeduraren arau erregulatzailean adierazitako epean eta ondorioekin. Halaber, salbuespen gisa, interesdunari eskatu ahal izango zaio jatorrizko dokumentua aurkezteko, edo aurkeztutako kopiak erkatzeko; horretarako, jatorrizko

4) Si excepcionalmente el órgano administrativo que tramita el procedimiento no puede obtener los datos o documentos, lo comunicará a la persona interesada, con indicación del motivo, para que los aporte en el plazo y con los efectos previstos en la norma reguladora del procedimiento correspondiente. También con carácter excepcional podrá requerir a la persona interesada la presentación del documento original, o el cotejo de las copias que hayan sido

dokumentua erakutsi beharko du, administrazio-prozeduraren legeetan xedatutakoarekin bat etorritz.

- 5) Aplikatu behar den araudi espezifikoaren arabera, interesdunari adostasun espresua eska dakioke Administrazioak dokumentuak lor ditzan. Interesdunak espresuki uko ere egin ahal izango dio horri, salbu eta zehatzeko edo ikuskatzeko ahalen bidez eskatzen badira dokumentuok.

Berariazko baimen hori interesdunak berak emango du, edo ez, prozedurako eskaera-inprimakian bertan.

10. artikulua. Hizkuntza-araubidea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak herritarrei bermatuko die legeetan aitortzen diren hizkuntza-eskubideak balia ditzaketela, bereziki, Administrazio publikoan euskara erabiltzeari buruzkoak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera.
2. Herritarrek euskara eta gaztelania ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubidea bermatuko da. Interesdunak aukeratuko du zein hizkuntza erabili nahi duen, euskara edo gaztelania, Administrazioarekiko izapideetan edo komunikazioak eta jakinarazpenak jasotzeko orduan. Kontrakoa adierazten ez badu, ulertuko da Administrazioa jo duenean erabili duen hizkuntza bera aukeratu duela.
3. Izapideen edozein unetan aldatu ahal izango da aukeratutako hizkuntza. Aldatuz gero, lehenagotik dauden dokumentuak hasieran aukeratutako hizkuntzan geratuko dira. Halaber, idatzita dauden hizkuntzan geratuko dira administrazio publikoek beren esku dauzkaten, egin dituzten edo interesdunak lehenagotik eman dizkien dokumentuak.

aportadas mediante la exhibición del documento original, conforme a lo dispuesto en la legislación de procedimiento administrativo.

- 5) La normativa específica aplicable puede requerir el consentimiento expreso de la persona interesada a que la Administración recabe los documentos. La persona interesada se podrá oponer expresamente a ello, salvo que la aportación de los documentos se exigiera en el marco del ejercicio de las potestades sancionadoras o de inspección.

Dicho consentimiento expreso será otorgado o no en el propio formulario de la solicitud en el procedimiento por la persona interesada.

Artículo 10. Régimen lingüístico.

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi garantizará a la ciudadanía el ejercicio de los derechos lingüísticos reconocidos en las leyes, en particular, los referidos al uso del euskera en la Administración pública, en virtud de lo dispuesto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera y en la normativa que la desarrolle.
2. Se garantizará el derecho de la ciudadanía a utilizar el euskera y el castellano, tanto oralmente como por escrito. La persona interesada elegirá el idioma, euskera o castellano, para realizar trámites y recibir comunicaciones y notificaciones de la Administración. Salvo indicación en contrario, se entenderá que la persona ha elegido el idioma utilizado al dirigirse a la Administración.
3. Se posibilitará la modificación de la opción lingüística en cualquier momento de la tramitación. En caso de modificación, se mantendrán los documentos anteriores en el idioma inicialmente elegido. Asimismo, se mantendrán en el mismo idioma en el que se encuentren redactados los documentos obrantes en las Administraciones Públicas, porque se encuentren en su poder, hayan sido

elaborados por ellas, o se hayan aportado anteriormente por la persona interesada.

4. Web-atarien eta egoitza elektronikoaren bidez herritarren esku jartzen diren edukiak, zerbitzuak eta informazioa, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo dira eskuragarri.

4. Los contenidos, servicios e información que se pongan a disposición de la ciudadanía a través de los portales web y la sede electrónica estarán disponibles, al menos, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

11. artikulua. Hizkera ez-sexista.

Artículo 11. Lenguaje no sexista.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren informazio, eduki eta dokumentu batek ere, edozein euskarri eta modalitatetan dagoela ere, ez du hizkera sexistarik erabiliko, eta bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala izango ditu, estereotipo sexistak alde batera utzita.

Toda información, contenido o documento de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cualquier soporte y modalidad hará un uso no sexista del lenguaje y mantendrá una presencia equilibrada y una imagen plural de ambos sexos, al margen de los estereotipos sexistas.

12. artikulua. Hizkera argia eta irakurterraza.

Artículo 12. Lenguaje claro y lectura fácil.

1. Euskarri eta kanal guztietan, Administrazioak zainduko du herritarrei emandako informazioan eta arretan erabiltzen den hizkuntzak hauek ahalbidetu ditzan:

1. La Administración velará para que el lenguaje utilizado en la información y atención a la ciudadanía en todos los soportes y canales le permita:

a) Behar den informazioa azkar eta erraz aurkitzea.

a) Encontrar rápida y fácilmente la información que necesita.

b) Zailtasunik gabe eta behar bezala ulertzea.

b) Comprenderla de forma correcta sin dificultad.

c) Jakinaren gainean erabakitzea.

c) Tomar, con conocimiento, sus decisiones.

2. Testu oro idazteko, hartzaileak jarriko dira erdigunean, eta haien premia, interes eta profilak izango dira ikuspegiaren ardatza.

2. Todos los textos se redactarán con una visión centrada en las personas destinatarias, y enfocados a sus necesidades, intereses y perfiles.

Euskarria edozein dela ere, idazkiek, formularioek eta dokumentuek argiak, zehatzak eta ondo antolatuak izan behar dute, eta arlo edo eremu horri eta hartzaileei lotutako jardunbide egokien arabera eginak.

Los escritos, formularios y documentos, sea cual sea su soporte, deberán ser claros, concisos, bien organizados y siguiendo las buenas prácticas asociadas al área o ámbito de que trate y a las personas destinatarias a las que se dirige.

3. Administrazioak herritarrentzat egiten dituen administrazio-komunikazio, ebazpen, erabaki eta gainerako dokumentu guztiak hizkera argian

3. Las comunicaciones administrativas, resoluciones, acuerdos, y cualquier documento que emita la Administración con destino a la

idatziko dira, errazago uler daitezzen, eta behar diren eskakizun teknikoak eta juridikoak errespetatuko dira.

4. IVAP–Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, urteko programazioan, berariazko prestakuntza-jarduerak antolatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan hizkera argiaren erabilera sustatzeko.

Horretaz gain, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prozesuetan lagundu eta aholkuak eman ahal izango ditu zerbitzuen eta prozeduren dokumentazioa hizkera argira egokitzeke.

5. Dekretu honen 59. artikuluko 4.f apartatuan xedatutakoari dagokionez, dokumentuak normalizatzeko, batez ere prozeduren eta zerbitzuen formularioak normalizatzeko, hizkera argiaren erabilerrari erreparatuko zaio.

13. artikulua. Kalteberak diren edo zailtasun bereziak dituzten pertsona eta taldeentzako arreta.

1. Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak zainduko du pertsona guztiek behar duten arreta era ulargarrian jaso dezaten.

Horretarako, behar diren neurriak hartuko ditu zailtasun bereziak dituzten pertsona eta taldeek herritarrentzako arreta-zerbitzua irispidean izan dezaten kanal guztien bitartez.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak irisgarritasuna sustatuko du herritarrei arreta emateko instalazioetan eta gune fisikoetan, bai eta komunikazio-sistemetan ere, batez ere zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat, gai horretan indarrean dauden legeek ezartzen dutenaren arabera.

ciudadanía estarán redactados en lenguaje claro para facilitar su comprensión, con el debido respeto a las exigencias técnicas y jurídicas necesarias.

4. El Instituto Vasco de Administración Pública habilitará en su programación anual las actividades formativas específicas que sean necesarias para el impulso del empleo del lenguaje claro en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Así mismo, el Instituto Vasco de Administración Pública podrá acompañar y asesorar los procesos de adaptación a lenguaje claro de la documentación de servicios y procedimientos.

5. En relación con lo establecido en el apartado 4.f del artículo 59 del presente Decreto, la normalización de documentos, especialmente de los formularios de los procedimientos y servicios, atenderá especialmente al uso de lenguaje claro.

Artículo 13. Atención a personas y colectivos sensibles o con especiales dificultades.

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi velará para que todas las personas obtengan la atención necesaria de forma comprensible.

Para ello, adoptará las medidas que sean necesarias para que las personas y colectivos con especiales dificultades puedan acceder al servicio de atención a la ciudadanía en todos los canales.

2. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi garantizará la accesibilidad a las instalaciones y espacios físicos de atención a la ciudadanía, así como y promoverá los sistemas de comunicación y en particular a las personas con especiales dificultades en los términos que establece la legislación vigente en la materia.

3. Administrazioak bultzatuko du desgaitasunen bat duten pertsonen informazioa errazago ulertzeko sistemak eta metodologiak ezar daitezen.
4. Bereziki zainduko da irakurketa errazeko bertsioak erabiltzea dibertsitate funtzionala duten pertsonen bereziki zuzendutako eduki edo zerbitzuetan, hala nola zailtasun kognitiboak edo ulermen-zailtasunak dituztenei, adinekoei eta immigratzaileei zuzendutakoetan.

14. artikulua. Salbuespenezko egoeretan eskubideak babesteko neurriak.

1. Salbuespenezko alarma-egoeretan edo Euskadiko Larrialdi Plana (LABI) aktibatzen den egoeretan, herritarrei arreta emateko eskumena duten organoek dagozkien neurriak gauzatuko dituzte, zeinak lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuek, agintari sanitarioek, babes zibileko agintariek eta beste edozein agintaritzak eskudunek ezartzen baitituzte.
2. Herritarrentzako arretaren eskumena duten organoek behar adina erabaki hartuko dituzte inguruabar horietan informaziorako irispidea bermatzeko eta orientazio egokia emateko arreta-bitarteko, -modalitate eta -kanal guztietan, bai eta herritarrentzako arreta-zerbitzu kalitateko, efikaz eta efiziente bat ematen jarraitzeko ere, ahal dela aurrez aurreko arretari eutsita. Edonola ere, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoen funtsezko eginkizuna bermatuko da, bai eta bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzeko zerbitzua ere.
3. Herritarrentzako arretaren eskumena duen organoak ebazpen bidez zehaztuko du aurrez aurreko zer prozedura murriztuko diren salbuespenezko egoeretan, eta, horretarako, kontuan hartuko du oinarrizkoak eta funtsezkoak diren.
4. Kapitulu honetan araututako salbuespenezko egoeretan, herritarrentzako arretaren eskumena

3. La Administración impulsará la adopción de sistemas y metodologías que faciliten la comprensión de la información para las personas con discapacidad.

4. Se velará especialmente por la utilización de versiones de lectura fácil en aquellos contenidos o servicios particularmente dirigidos a los colectivos con diversidad funcional, como personas con dificultades cognitivas o de comprensión, personas mayores, y personas inmigrantes.

Artículo 14. Medidas de salvaguarda de derechos en situaciones excepcionales.

1. En situaciones excepcionales de alarma y/o activación del Plan de Emergencias de Euskadi-LABI, los órganos competentes en atención a la ciudadanía materializarán las medidas que les correspondan establecidas por los servicios de prevención de riesgos laborales, de las autoridades sanitarias, de protección civil y cualesquiera otras competentes.
2. Los órganos competentes en atención a la ciudadanía adoptarán cuantas decisiones sean necesarias para garantizar en dichas circunstancias el acceso a la información y la orientación adecuada en el conjunto de los medios, modalidades y canales de atención, así como la continuidad en la prestación de un servicio de atención a la ciudadanía de calidad, eficaz y eficiente, manteniendo, en la medida de lo posible, la atención presencial. En cualquier caso, se garantizará la función esencial de las oficinas de asistencia en materia de registro y la asistencia en el uso de los medios electrónicos.
3. La reducción de los procedimientos presenciales en situaciones excepcionales se determinará, por Resolución del órgano competente en materia de atención a la ciudadanía en base a su carácter básico y esencial.
4. En las situaciones excepcionales reguladas en el presente capítulo, los órganos competentes en

duten organoek behar diren neurriak hartuko dituzte herritarrei arreta emateko oinarritzko eta funtsezko zerbitzuak emango direla bermatzeko, enplegatu publikoen arloan indarrean dauden legeek xedatutakoaren arabera eta, hala badagokio, funtzio publikoaren arloko eskumena duen organoarekin koordinatuta.

5. Ahal dela, bitarteko hauek erabiliko dira:

- a) Giza baliabideak birbanatzea.
- b) Giza baliabideak berresleitzea.
- c) Eginkizunak aldi baterako esleitzea.

II. KAPITULUA. HARREMANAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ IZATEKO BETEBEHARRA

15. artikulua. Harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko betebeharra.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekin bitarteko elektronikoen bidez jarri beharko dira harremanetan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan adierazitako subjektuez gain, honako hauek:

- a) Enpresaburu indibidualak edo autonomoak, lanbide-jardueran egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.
- b) Unibertsitateko ikasleak, egoera akademikoaren ondorioz egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoko kidego, eskala edo lan-kategorietan sartzeko hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte hautaketa-prozesuari lotutako izapide guztiak, deialdietan ezarritakoaren arabera.

atención a la ciudadanía, adoptarán las medidas necesarias para disponer los recursos necesarios en orden a garantizar la prestación de los servicios de atención a la ciudadanía básicos y esenciales de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente en materia de personal empleado público y en coordinación, en su caso, con el órgano competente en materia de función pública.

5. Se emplearán, preferentemente, los siguientes medios:

- a) Redistribución de efectivos.
- b) Reasignación de efectivos.
- c) Atribución temporal de funciones.

CAPÍTULO II. OBLIGACIÓN DE RELACIONARSE A TRAVÉS DE MEDIOS ELECTRÓNICOS

Artículo 15. Obligación de relacionarse a través medios electrónicos.

1. Estarán obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, además de los sujetos a los que se refiere el artículo 14. 2 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, los siguientes:

- a) Las personas empresarias individuales o autónomas para los trámites y actuaciones que realicen en el ejercicio de su actividad profesional.
- b) El estudiantado universitario para los trámites y actuaciones que realicen con motivo de su condición académica.
- c) Las personas que participen en procesos selectivos para el acceso a cuerpos o escalas y/o categorías laborales de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi deben realizar por medios electrónicos todos los trámites relacionados con el proceso selectivo, de acuerdo con lo

Nolanahi ere, E eta D taldeak eta ezinduak salbuetsita daude.

que establezcan las convocatorias respectivas.

Se exceptúan, en todo caso, los grupos E, D y las personas discapacitadas.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren edozein eremutako aldi baterako langileen lan-poltsetan dauden pertsonak, lan-poltsa horiei lotutako izapide eta kudeaketa guztietarako.

d) Las personas de las bolsas de trabajo de personal temporal de cualquier ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi en todos los trámites y gestiones relacionados con las mismas.

e) Arestian aipatutako edonor ordezkatzan duten pertsonak.

e) Las personas que representen a cualquiera de las anteriormente indicadas.

2. Administrazioak, erregelamenduz, behartu ahal izango du berarekiko komunikazioa bitarteko elektroniko hutsez izatera zenbait prozeduratan, baldin eta egiaztatuta badago interesdunek (pertsona fisikoak) gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, ardura profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik badutela bitarteko elektronikoetarako irispidea eta bitarteko horiek erabiltzeko modua.

2. La Administración, reglamentariamente, podrá obligar a comunicarse con ella utilizando únicamente medios electrónicos para determinados procedimientos, cuando las personas interesadas sean de ciertos colectivos de personas físicas que, por razón de su capacidad económica, técnica, dedicación profesional u otros motivos quede acreditado que tienen acceso y disponibilidad de los medios electrónicos necesarios.

3. Komunikazio elektroniko hutsa ezartzen duen arauan, hauek zehaztuko dira:

3. En la norma que establezca la obligación de comunicación exclusivamente electrónica se especificará:

a) Nor dagoen horretara behartuta.

a) Las personas obligadas.

b) Zer komunikaziori aplikatzen zaion.

b) Las comunicaciones a las que se aplica.

c) Jakinarazpen elektronikoaren egikaritzea ere barne hartzen duen ala ez.

c) Si comprende o no la práctica de notificaciones electrónicas.

d) Zer bitarteko elektroniko erabiliko den.

d) El medio electrónico que se utilizará.

e) Erregistro elektronikoa erabiliko den.

e) La utilización del registro electrónico.

4. Bekak, laguntzak eta dirulaguntzak emateko prozeduren oinarri arautzaileei buruzko dekretuek, bitarteko elektronikoak nahitaez erabili beharra ezarri ahal izango dute, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarrak betetzen direla justifikatzen badute. Inguruabar horiek onartzeko

4. Los Decretos de las bases reguladoras de los procedimientos para la concesión de becas, ayudas y subvenciones podrán establecer la obligatoriedad del uso de los medios electrónicos, siempre que se justifique en ellas la concurrencia de las circunstancias indicadas en el apartado anterior, justificación que deberá

prozeduraren memorian jaso beharko da justifikazio hori.

Administrazioarekiko harreman guztiak elektronikoki izateko betebeharra duen norbaitek beste kanal batetik egiten badu izapideren bat, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 14. artikuluko zuzenketa-araubidea aplikatuko zaio –203/2021 Errege Dekretua, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena–.

5. Bitarteko teknologikoak erabili ezin direnerako, zerbitzu publikoak ez eteteko mekanismoak aurreikusiko dira.

16. artikulua. Enplegatu publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren arteko harremanak.

1. Enplegatu publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan duten lanpostuko eginkizunak betetzen dituztenean, eta enplegatu publiko izateagatik egiten dituzten izapide eta jarduketetan, nahitaez izan beharko dituzte harremanak bitarteko elektronikoen bidez.
2. Desgaitasun intelektuala duten enplegatu publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan duten lanpostuko eginkizunak betetzen ari direnean, eta enplegatu publiko izateagatik egiten dituzten izapide eta jarduketetan, aukeratu ahal izango dute harremanak bitarteko elektronikoen bidez izan ala ez.
3. Betebehar hori eragozten duen inguruabarren bat izanez gero, zerbitzuak ematen dituen organo edo unitateko titularrak edo hark izendatutako pertsonak bermatu beharko diete enplegatu publikoei bitarteko horiek erabiltzen lagunduko zaiela.

recogerse en la memoria del procedimiento para la aprobación de las mismas.

A toda persona que, estando obligada a relacionarse exclusivamente de forma electrónica con la Administración realice algún trámite por otro canal, se le aplicará el régimen de subsanación del artículo 14 del Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos.

5. Se preverán los mecanismos para la continuidad de los servicios públicos en caso de indisponibilidades tecnológicas.

Artículo 16. Relaciones de las personas empleadas públicas con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

1. Las personas empleadas públicas, cuando estén desempeñando de forma efectiva sus puestos de trabajo en Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, están obligados a relacionarse a través de medios electrónicos, para los trámites y actuaciones que realicen por razón de su condición de personal empleado público.
2. Las personas empleadas públicas con discapacidad intelectual, cuando estén desempeñando de forma efectiva sus puestos de trabajo en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, podrán elegir relacionarse a través de medios electrónicos para los trámites y actuaciones que realicen por razón de su condición de personal empleado público.
3. En el caso de circunstancias que impidan el cumplimiento de esta obligación, la persona titular del órgano o unidad en que prestan servicios, o las personas designadas por ella, deben garantizar a las personas empleadas públicas la asistencia en el uso de estos medios.

17. artikulua. Pertsona fisikoen eta Administrazioaren arteko harremanak.

1. Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez nahitaez izan behar ez dituzten pertsona fisikoek noiznahi erabaki ahal izango dute ea bitarteko elektronikoa erabiliko dituzten ala ez eskubide eta betebeharrak baliatzeko Administrazioarekiko harremanetan.
2. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratzen duten bidea edozein unetan aldatu ahal izango dute; hala ere, prozedura izapidetzeko eskumena duen organoari eman beharko diote horren berri, jasota gera dadin.

Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak horren berri izan eta hurrengo bosgarren egun baliodunetik aurrera sortuko dira komunikazio-ondorioak.

3. Administrazioak bitarteko elektronikoa erabiliko ditu pertsona fisikoekiko komunikazioetan, baldin eta hala eskatu edo berriaz onartu badute. Eskabidea eta onarpen horiek bitarteko elektronikoen bidez bidali eta jaso ahal izango dira kasu guztietan.
4. Aparteko alarma-egoeretan eta/edo Euskadiko Larrialdi Plana (LABI) aktibatzeko egoeretan, herritarrei arreta emateko eskumena duten organoek gauzatuko dituzte lan-arriskuen prebentzioko zerbitzuek, osasun-agintariak, babes zibileko agintariak eta beste edozein agintaritza eskudunek ezarritako neurriak.
5. Herritarrei arreta emateko eskumena duten organoek behar adina erabaki hartuko dituzte egoera horietan informazioa eta orientazio egokia bermatzeko arreta-bitarteko, -modalitate eta -kanal guztietan, bai eta herritarrei arreta emateko zerbitzu kalitatezkoa, eraginkorra eta eraginkorra ematen jarraitzeko ere, ahal den neurrian aurrez aurreko arreta

Artículo 17. Relaciones de las personas físicas con la Administración.

1. Las personas físicas no obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con la Administración podrán elegir en todo momento si se relacionan con la Administración para el ejercicio de sus derechos y obligaciones a través de medios electrónicos o no.
2. El medio elegido por la persona para comunicarse con las Administraciones Públicas podrá ser modificado por aquella en cualquier momento, si bien deberá comunicarse al órgano competente para la tramitación del procedimiento, de forma que quede constancia de la misma.

Los efectos de la comunicación se producirán a partir del quinto día hábil siguiente a aquel en que el órgano competente para tramitar el procedimiento haya tenido constancia de la misma.

3. La Administración utilizará medios electrónicos en sus comunicaciones con las personas físicas, siempre que ésta lo haya solicitado o consentido expresamente. La solicitud y el consentimiento podrán, en todo caso, emitirse y recabarse por medios electrónicos.
4. En situaciones excepcionales de alarma y/o activación del Plan de Emergencias de Euskadi-LABI, los órganos competentes en atención a la ciudadanía materializarán las medidas que les correspondan establecidas por los servicios de prevención de riesgos laborales, de las autoridades sanitarias, de protección civil y cualesquiera otras competentes.
5. Los órganos competentes en atención a la ciudadanía adoptarán cuantas decisiones sean necesarias para garantizar en dichas circunstancias el acceso a la información y la orientación adecuada en el conjunto de los medios, modalidades y canales de atención, así como la continuidad en la prestación de un servicio de atención a la ciudadanía de calidad,

mantenduz. Nolanahi ere, erregistroaren arloan laguntza-bulegoen funtsezko eginkizuna bermatuko da, bai eta baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ere.

6. Salbuespenezko egoeretako prozedura presentzialen murrizketa Herritarrei arreta emateko arloan eskumena duen organoaren ebazpen bidez zehaztuko da, haien oinarritzko eta funtsezko izaeran oinarrituta.

7. Kapitulu honetan araututako salbuespenezko egoeretan, herritarrei arreta emateko eskumena duten organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte herritarrei arreta emateko oinarritzko eta funtsezko zerbitzuak bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak xedatzeko, enplegatu publikoen arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera eta, hala badagokio, funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoarekin koordinatuta.

8. Ahal dela, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

- a) Giza baliabideen birbanaketa.
- b) Langileen berresleipena.
- c) Eginkizunen aldi baterako esleitzea.

eficaz y eficiente, manteniendo, en la medida de lo posible, la atención presencial. En cualquier caso, se garantizará la función esencial de las oficinas de asistencia en materia de registro y la asistencia en el uso de los medios electrónicos.

6. La reducción de los procedimientos presenciales en situaciones excepcionales se determinará, por Resolución del órgano competente en materia de atención a la ciudadanía en base a su carácter básico y esencial.

7. En las situaciones excepcionales reguladas en el presente capítulo, los órganos competentes en atención a la ciudadanía, adoptarán las medidas necesarias para disponer los recursos necesarios en orden a garantizar la prestación de los servicios de atención a la ciudadanía básicos y esenciales de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente en materia de personal empleado público y en coordinación, en su caso, con el órgano competente en materia de función pública.

8. Se emplearán, preferentemente, los siguientes medios:

- a) Redistribución de efectivos.
- b) Reasignación de efectivos.
- c) Atribución temporal de funciones.

III. TITULUA. HERRITARRENTZAKO ARRETAREN EGINKIZUNAK, MODALITATEAK ETA MAILAK

TÍTULO III. FUNCIONES, MODALIDADES Y NIVELES DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

18. artikulua. Herritarrentzako arretaren eginkizunak.

Artículo 18. Funciones de atención a la ciudadanía.

1. Herritarrentzako arreta-zerbitzuen helburua hau da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak ematen dituen zerbitzuei buruz informatu eta orientatzea, eta Administrazio orokorrarekiko harremanak erraztea, bereziki administrazio-izapideak egiteko, erabilitako kanala edozein dela ere.

1. Los servicios de atención a la ciudadanía tienen como finalidad informar y orientar sobre los servicios que presta la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y facilitar las relaciones con la misma, particularmente en la realización de trámites

administrativos, con independencia del canal utilizado.

2. Administrazio-informazioak hauek hartzen ditu barnean:

- a) Administrazio-informazio orokorra ematea herritarrei.
- b) Administrazio-informazio espezializatua ematea, kasuan kasuko araudi espezifikoren arabera, edo herritarrek egiten dituzten eta tratamendu espezializatua behar duten eskabide, eskaera edo kontsultak organo eskudunari igorri eta bideratzea.
- c) Administrazio-informazio partikularra orientatu eta ematea.

3. Dokumentuak jaso eta erregistratzeak hauek hartzen ditu barnean:

- a) Dokumentuak, inprimakiak eta formularioak betetzeko orientazioa eta aholkuak ematea, eta, hala badagokio, erantsi beharreko dokumentazioari buruzko informazioa ematea.
- b) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoen eginkizunak egitea.
- c) Eskabideak, idazkiak eta dokumentuak jaso, egiaztatu, digitalizatu eta erregistratzea, bakoitzari dagokion administrazio-prozedura izapidetzen hastea, eta dokumentazioa entregatu izanaren egiaztagiriak egitea.
- d) Dokumentazioa banatzea eta sail, organismo edo erakunde eskudunera bideratzea.

4. Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko laguntza eta orientazioa emateak hauek hartzen ditu barnean:

- a) Bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea Administrazioarekin kanal horren bidez

2. La información administrativa implica:

- a) Proporcionar a la ciudadanía información administrativa general.
- b) Proporcionar información administrativa especializada conforme a la normativa específica en cada caso, o remitir y canalizar al órgano competente, las solicitudes, peticiones o consultas de la ciudadanía que requieran un tratamiento especializado.
- c) Orientar y proporcionar información administrativa particular.

3. La recepción y registro de documentos implica:

- a) Orientar y asesorar en la cumplimentación de documentos, impresos y formularios e informar, en su caso, sobre la documentación que deben acompañar.
- b) Realizar las funciones de Oficinas de Asistencia en Materia de Registros.
- c) Recibir, comprobar, digitalizar y registrar solicitudes, escritos y documentos e iniciar la tramitación del correspondiente procedimiento administrativo y expedir los correspondientes justificantes de entrega de documentación.
- d) Distribuir y canalizar la documentación al departamento, organismo o institución competente.

4. La asistencia y orientación en el ejercicio de sus derechos y en el cumplimiento de sus obligaciones implica:

- a) Asistir en el uso de los medios electrónicos a las personas no obligadas a relacionarse con la Administración por dicho canal.

harremanak izatera behartuta ez dauden pertsonen.

- b) Herritarrei laguntzea eskariak egiteko eskubidea baliatzen –Eskariak Egiteko Eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan dago araututa–.
- c) Tasak, zehapenak eta prezio publikoak kobratzea, Administrazioaren ordainketa- eta kobrantza-sistema integralaren bidez.
- d) Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa, Erregistro Elektronik Orokorra, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa eta Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa kudeatzea.
- e) Kexak eta iradokizunak kudeatzea kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa kudeatzea da.

- b) Asistir a la ciudadanía en el ejercicio del derecho de petición regulado en la Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, reguladora del derecho de petición.
- c) Cobrar tasas, sanciones y precios públicos a través del Sistema Integral de Pagos y Cobros de la Administración.
- d) Gestionar el Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos, el Registro Electrónico General, el Registro Electrónico de Apoderamientos y el Registro de Personal Funcionario Habilitado.
- e) La gestión de quejas y sugerencias implica la gestión del Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias.

19. artikulua. Herritarrentzako arretaren modalitateak.

1. Herritarrei arreta emateko sistema integrala 21. artikuluan dago araututa; haren bidez emango da herritarrentzako arreta; horretarako, aurrerapen teknologikoen arabera une bakoitzean gaitutako modalitateak daude, eta modalitate horiek irisgarritasunaren arloan indarrean dauden estandarrak beteko dituzte.
2. Herritarrentzako arreta informatika- eta telekomunikazio-teknologiek ahalbidetzen dituzten kanal, bitarteko edo sistemen bidez eman daiteke, betiere pertsonen eskubideak eta dekretu honetan eta indarreko legeetan adierazitako printzipioak errespetatuta.
3. Herritarrek beren beharretara ondoen egokitzen den irispide-modalitatea aukeratu ahal izango dute, erabilgarri dauden artetik, eta Administrazioarekin harremanetan jarri ahal izango dira herritarrentzako arretarako modalitate batez baliatuta edo zenbait

Artículo 19. Modalidades de atención a la ciudadanía.

1. La atención a la ciudadanía se prestará mediante el Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía regulado en el artículo 21 a través de las modalidades habilitadas en cada momento en función de los avances tecnológicos, y que cumplirán con los estándares vigentes en materia de accesibilidad.
2. La atención a la ciudadanía podrá prestarse por los canales, medios o sistemas que las tecnologías de informática y telecomunicaciones permitan, respetando siempre los derechos que asisten a las personas y los principios recogidos en el presente Decreto y en la legislación vigente.
3. La ciudadanía podrá elegir la modalidad de acceso que mejor se adapte a sus necesidades de entre las que estén disponibles y podrá relacionarse con la Administración mediante una o la combinación de diversas modalidades de atención a la ciudadanía en función del canal de prestación del servicio:

konbinatuta, zerbitzua emateko kanalaren arabera:

a) Arreta elektronikoa: irispide-puntu elektroniko bakarraren bidez emango da –34. artikuluan dago araututa– eta, hortik sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoaren bidez – 35. artikuluan dago araututa–.

b) Aurrez aurreko arreta: interesduna agintarien eta enplegatu publikoen aurrean pertsonatuta eta, berariaz, herritarrentzako arreta-zerbitzukoaren aurrean, horretarako antolatutako bulego eta dependentzietan.

c) Arreta telefonikoa: telefono orokor bakarraren bidez emango da, hargatik eragotzi gabe telefono espezializatuen bidez ematea eskumen-eremu jakin batzuetan, hain zuzen ere, espezifiktasunaren ondorioz.

d) Arretarako beste modalitate batzuk: aurrerapen teknologikoen arabera joango dira onartzen.

Bitarteko horiek sortu, aldatu eta garatzeko, ezarritako politikak beteko dira.

4. Arreta-eskabidea egiten denetik erantzuna hartu arteko denboraren arabera, herritarrentzako arreta honelakoa izan daiteke:

a) Berehalako arreta: eskabidea egiten duten une berean ematen zaie arreta herritarrei.

b) Arreta geroratua: eskabidea egin ondoren ematen zaie arreta herritarrei.

Arreta geroratuko da baldin eta eskabideagatik beragatik edo kanalagatik ezin bada berehala erantzun dauden arreta-kanalaren bidez, baizik eta gerora bestelako

a) Atención electrónica, que se prestará por medio del punto único de acceso electrónico regulado en el artículo 34 y, a través de él por la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi regulada en el artículo 35.

b) Atención presencial, mediante la personación física de la persona interesada ante las autoridades y el personal empleado público y, específicamente, del servicio de atención a la ciudadanía en las dependencias y oficinas establecidas al efecto.

c) Atención telefónica, que se prestará a través de un teléfono único general, sin perjuicio de que se pueda prestar a través de teléfonos especializados en determinados ámbitos competenciales como consecuencia de su especificidad.

d) Otras modalidades de atención que se aprueben en función de los avances tecnológicos.

La creación, modificación y desarrollo de estos medios se ajustará a las políticas que se establezcan.

4. En función del tiempo transcurrido entre la solicitud de atención y la respuesta recibida, la atención a la ciudadanía puede ser:

a) Atención inmediata, cuando la atención a la ciudadanía se realiza en el mismo momento de la solicitud.

b) Atención diferida, cuando la atención a la ciudadanía se realiza con posterioridad a la solicitud.

La atención se ofrecerá de modo diferido cuando, por la naturaleza de la solicitud o del canal, ésta no pueda ser atendida de modo inmediato a través de los distintos canales de atención, sino posteriormente, mediante

komunikazio batzuen bidez: postaz, telefonoz, komunikazio elektronikoz.

comunicaciones postales, telefónicas, electrónicas, u otras.

5. Enplegatu publikoen laguntza zenbateraino den beharrezkoa kontuan hartuta, arreta honelakoa izan daiteke:

- a) Lagunduriko arreta: arreta orokorreko eta arreta espezializatuko langileek lagundua.
- b) Autozerbitzuko arreta: interesdunak bitarteko elektronikoen bidez gauzatutako ekintza autonomoa.

5. En función de la necesidad de asistencia por el personal empleado público la atención puede ser:

- a) Atención asistida por personal de atención general y personal de atención especializada.
- b) Atención por autoservicio, mediante la acción autónoma de la persona interesada empleando medios electrónicos.

20. artikulua. Herritarrentzako arretaren mailak.

Artículo 20. Niveles de atención a la ciudadanía.

1. Kontuan hartuta herritarrentzako arreta emateko zenbateraino den beharrezkoa bai jakintza espezializatuak izatea, bai bigarren mailako informazio-sistema edo -plataformetarako irispidea izatea, bai informazioa, datuak edo dokumentuak prestatzea, arreta-maila hauek ezartzen dira:

- a) Maila orokorra: oinarrizko laguntza, informazioa eta orientazioa emango da prozedurak eta zerbitzu publikoak modu multikanal batean izapidetzeko.
- b) Maila espezializatua: administrazio-organismoaren eskumen-eremuko zerbitzu publikoei eta prozedura espezifikoiei buruzko informazioa emango da.
- c) Maila partikularra: interesdunari bere espedientei buruzko informazio zehatza emango zaio administrazio-prozeduretan.

1. En función del grado de especialización del conocimiento requerido para la atención a la ciudadanía, la necesidad de acceso a sistemas o plataformas de información de segundo nivel y/o la necesidad de preparación de la información, datos o documentación, se establecen los siguientes niveles de atención:

- a) Nivel general: ofrecerá información, orientación y asistencia básica a la tramitación de los procedimientos y servicios públicos de forma multicanal.
- b) Nivel especializado: ofrecerá información de los servicios públicos y procedimientos específicos del ámbito competencial de órgano administrativo responsable.
- c) Nivel particular: ofrecerá a la persona interesada la información concreta de sus expedientes en los procedimientos administrativos.

2. Herritarrentzako arretaren eskumena duen organismoaren erantzukizuna da herritarrei aurrez aurreko kanalean eta telefono bidezkoan ematen zaien arretaren maila orokorra.

2. El nivel general de atención a la ciudadanía en el canal presencial y telefónico es responsabilidad del órgano competente en materia de atención a la ciudadanía.

3. Kanal elektronikoan, hauek hartuko dira arreta-maila orokortzat:

- a) Web-atarietako informazioa eta, bereziki, egoitza elektronikoan argitaratutako zerbitzuen eta prozeduren informazio-fitxa.

3. Se considera nivel general de atención ciudadana en el canal electrónico:

- a) La información de los portales web y específicamente, la ficha de información de los servicios y procedimientos publicados en

Horren gaineko erantzukizuna gai, zerbitzu eta prozedura bakoitzaren eskumena duen organoarena izango da.

b) Herritarrei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea. Laguntza hori VII. tituluaren II. kapituluan dago araututa.

c) «euskadi.eus» postontzi elektronikoa orokorra.

4. Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileei Arreta Emateko Zentroa, 62.2.a. artikuluan arautua, bigarren mailako arreta espezializatua da, gorabehera eta herritarrek kanal elektronikoa erabil dezaten laguntzeari buruzkoa.

5. Herritarrei arreta maila espezializatuan eta partikularrean eskatu ahal izango dute:

a) Arlo, jardun-arlo eta prozedura bakoitzean eskumena duten administrazio-organoei zuzenean.

b) Zeharka, Zuzenean Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuaren arreta maila orokorretik aurrekoetara lekualdatuz edo eskalatuz.

6. Herritarrei arreta emateko maila espezializatuaren erantzukizuna da:

a) Dagozkion eskumen eta gaiei buruzko informazio espezializatua ematea, Zuzenean Zerbitzuko herritarrentzako arreta-maila orokorrarekin lankidetzan eta koordinatuta.

b) Herritarrei kalitatezko arreta eraginkorra eta efizientea emateko inplikazio proaktiboa izatea. Horretarako, besteak beste, prozeduren deialdi publikoak koordinatuko ditu Zuzenean Zerbitzuaren arreta-maila orokorrarekin, behar besteko aurrerapenarekin, eta, bereziki, dekretu honen **X.** tituluko **III.** kapituluan xedatutakomekanismoak bereziki kontuan hartuta.

sede electrónica, cuya responsabilidad es de los órganos competentes en cada materia, servicio y procedimiento.

b) La asistencia a la ciudadanía en el uso de los medios electrónicos regulada en el capítulo II del título VII.

c) El buzón electrónico general de «euskadi.eus».

4. El Centro de Atención de las Personas Usuarias de los Servicios Electrónicos regulado en el artículo 62.2.a. constituye atención especializada de segundo nivel sobre las incidencias y apoyo al uso del canal electrónico por parte de la ciudadanía.

5. La ciudadanía podrá solicitar la atención en el nivel especializado y particular:

a) De forma directa a los órganos administrativos competentes en cada materia, área de actuación y procedimiento.

b) De forma indirecta mediante el traslado o escalado a los anteriores desde el nivel de atención general del Servicio de Atención a la Ciudadanía, Zuzenean.

6. Es responsabilidad del nivel especializado de atención a la ciudadanía:

a) La información especializada sobre las competencias y materias que correspondan en colaboración y coordinación con el nivel general de atención a la ciudadanía del Servicio Zuzenean.

b) La implicación proactiva en una eficaz y eficiente atención de calidad a la ciudadanía para lo que, entre otros, coordinará las convocatorias públicas de los procedimientos con el nivel general de atención del Servicio Zuzenean con la suficiente antelación, atendiendo especialmente a los mecanismos dispuestos en el capítulo **III** del Título **X** de este Decreto.

7. Herritarrentzako arreta-maila partikularren erantzukizuna da:

Espedienteen instrukzioa eta dagozkion administrazio-prozeduren ebazpena, bere eskumenen arabera, eta espediente horiei buruzko informazio partikularra eta herritarrei arreta eskaintzea, araudian ezarritako baldintzetan.

21. artikulua. Herritarrei arreta emateko sistema integrala.

1. Ematen den zerbitzua zeharkakoa, osoa eta koherentea izan dadin, herritarrei arreta emateko sistema integrala prozesu, zerbitzu, modalitate, maila, plataforma, organo eta administrazio-unitateen multzoa da, dekretu honetan arautzen den herritarrentzako arreta-eginkizunen euskarri.
2. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak zehaztuko du, herritarrentzako arretaren eskumena duen organoak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren orotariko zer osagai eta elementu atxiki behar zaizkion, osorik edo zati batean, herritarrei arreta emateko sistema integralari.
3. Nolanahi ere, hauek osatzen dute herritarrei arreta emateko sistema integrala:
 - a) Herritarrentzako arretaren eskumena duen administrazio-organoa, Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzua eta erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak.
 - b) Arreta espezializatuaren erantzukizuna duten gainerako administrazio-organok.
 - c) Interneteko presentzia-eredua –V. tituluaren arautua.
 - d) Arreta aurrez aurre emateko bulegoen aurretiko hitzordua eta itxaronaldiak kudeatzeko sistema.
 - e) 012 telefonoaren bidezko kanal korporatiboaren, postontzi elektronikoa

7. Es responsabilidad del nivel particular de atención a la ciudadanía:

La instrucción de los expedientes y la resolución de los procedimientos administrativos que le correspondan en razón de sus competencias y la información particular y atención a la ciudadanía sobre los mismos en los términos establecidos en la normativa.

Artículo 21. Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía.

1. Con el fin de prestar un servicio transversal, completo, y coherente, el Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía constituye el conjunto de procesos, servicios, modalidades, niveles, plataformas, órganos y unidades administrativas soporte de las funciones de atención a la ciudadanía reguladas en el presente Decreto.
2. El Consejo del Gobierno Vasco determinará, a propuesta del órgano competente en materia de atención a la ciudadanía, los componentes y elementos de todo tipo de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se deben adscribir, total o parcialmente, al Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía.
3. Forman parte del Sistema Integral de la Atención a la Ciudadanía, en cualquier caso:
 - a) El órgano administrativo competente en atención a la ciudadanía, el Servicio de Atención a la Ciudadanía, Zuzenean y las Oficinas de Asistencia en Materia de Registros.
 - b) El resto de los órganos administrativos en su responsabilidad de atención especializada.
 - c) El modelo de presencia en Internet regulado en el título V.
 - d) El sistema de gestión de cita previa y esperas de las oficinas de atención presencial.
 - e) El sistema de telecomunicaciones de soporte al canal telefónico corporativo 012, al buzón

orokorraren eta gailu mugikorretarako bat-bateko mezularitzaren euskarri den telekomunikazio-sistema.

f) Autozerbitzurako espazio publikoak.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren zerbitzu- eta prozedura-katalogo korporatiboa.

h) Ahalordeen Erregistro Elektronikoa eta Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa.

i) Erregistro elektronikoro orokorra.

j) Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroa, herritarrei zuzendutako arloan.

k) Postontzi elektronikoro orokorra.

l) Herritarrentzako arretaren kudeaketaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko sistemak eta, bereziki, kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa.

m) Eta administrazio elektronikoko azpiegitura eta zerbitzu komunetan herritarrentzat eskuragarri dauden gainerako sistema eta soluzio informatikoak –dekretu honen 72. artikuluan arautuak–.

4. Herritarrei arreta emateko sistema integrala osatzen duten zerbitzuak identifikatu eta ezagutarazteko, zerbitzu-marka hauek ezarri dira:

a) «euskadi.eus», Interneteko presentziaren eta egoitza elektronikoen irudi eta marka gisa.

b) «Zuzenean», herritarrentzako arreta-zerbitzuaren irudi eta marka gisa.

Herritarrei arreta emateko sistema integralaren osagai, aplikazio eta elementu guztiak etengabe egongo dira identifikatuta sistemaren irudi korporatiboetako batekin, gutxienez.

electrónico general y a la mensajería instantánea a dispositivos móviles.

f) Los espacios públicos de autoservicio.

g) El Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

h) El Registro Electrónico de Apoderamientos y el Registro de Personal Funcionario Habilitado.

i) El Registro Electrónico General.

j) El Centro de Atención a las Personas Usuaris de los Servicios Electrónicos en el área dirigida a la ciudadanía.

k) El buzón electrónico general.

l) Los sistemas de, seguimiento y evaluación de la gestión de la atención a la ciudadanía en general y el Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias en particular.

m) Y el resto de sistemas y soluciones informáticas disponibles para la ciudadanía de las infraestructuras y los servicios comunes de Administración electrónica regulados en el artículo 72 de este Decreto.

4. Para la identificación y conocimiento de los servicios que componen el Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía, se establecen las siguientes marcas de servicio:

a) «euskadi.eus», como imagen y marca de la presencia en Internet y la sede electrónica.

b) «Zuzenean», como imagen y marca del Servicio de Atención a la Ciudadanía.

Todos los componentes, aplicaciones y elementos del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía estarán permanentemente identificados con al menos una de las imágenes corporativas del sistema.

- | | |
|--|--|
| <p>5. Herritarrentzako arretaren eskumena duen organoari dagokio herritarrei arreta emateko sistema integrala zuzendu, kontrolatu eta kudeatzea, arreta espezializatua izan ezik, zerbitzu osoa eta kalitatekoa emateko, bereziki, informazioak zatika ez daitezen edo informazioen arteko kontraesanak sor ez daitezen, eta herritarrek Administrazioarekin komunikatzeko bidea aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.</p> | <p>5. Corresponde al órgano competente en materia de atención a la ciudadanía la dirección, control y gestión del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía a excepción de la atención especializada, con el objeto de prestar un servicio completo y de calidad y, en particular, para evitar la fragmentación de las informaciones o las contradicciones entre las mismas, y garantizar el derecho de la ciudadanía a la elección de medio de comunicación con la Administración.</p> |
| <p>6. Herritarrei arreta emateko sistema integraleko aplikazio informatikoetarako mandaturen bat egiten bazaie baliabide propioei, datu pertsonalen tratamendurako jardueren informazio-fitxak sartuko dira mandatuan, zeinak egongo baitira tratamendu-jardueren erregistroan erregistratuta eta «euskadi.eus»en argitaratuta.</p> | <p>6. Los encargos a medios propios que se realicen sobre las aplicaciones informáticas del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía incluirán las fichas de información de las actividades de tratamiento de datos personales registradas en el Registro de Actividades de Tratamiento y publicadas en «euskadi.eus».</p> |
| <p>7. Tratamendu-jardueren erregistroan eta baliabide propioei egindako mandatueta, gainerako administrazio-organismo eskudunetatik bereizita zehaztuko dira datu pertsonalak tratatzeko jarduerak, baldin eta haien erantzukizuna herritarrentzako arretaren eskumena duen organismoarena bada berariaz eta eskusiboki.</p> | <p>7. Tanto el Registro de Actividades de Tratamiento como los encargos a medios propios explicitarán de forma diferenciada del resto de órganos administrativos competentes, las actividades de tratamiento de datos personales cuya responsabilidad es específica y exclusiva del órgano competente en atención a la ciudadanía.</p> |

IV. TITULUA. HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

I. KAPITULUA. PUBLIKOTASUN AKTIBOA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

22. artikulua. Informazio publikoaren publikotasun aktiboa.

1. Hauxe da publikotasun aktiboa: jardueren gardentasuna bermatzen duen informazio publiko garrantzitsua eta eguneratua eta, batez ere, jarduera publikoaren funtzionamenduari

TÍTULO IV. INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

CAPÍTULO I. PUBLICIDAD ACTIVA Y DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA

Artículo 22. La publicidad activa de la información pública.

1. Se entiende por publicidad activa la obligación de hacer pública por propia iniciativa de manera periódica y actualizada la información pública de relevancia que garantice la transparencia de su actividad y, en particular, la relacionada con

eta kontrolari lotutakoa norberaren ekimenez eta aldizka aditzera eman beharra.

2. Aurreko apartatuan adierazitako informazio hori irisgarri egongo da, behintzat, leku hauetan: «euskadi.eus» atarian, egoitza elektronikoan, www.gardena.euskadi.eus gardentasun-atarian eta www.legegunea.euskadi.eus atarian.
3. Publikotasun aktiboaren printzipioetan, gai horretako betebeharretan eta gainerako erregulazioetan, indarreko araudi espezifikoak beteko da.
4. Gobernu irekiaren eskumena duen organoak ezarriko ditu informazioaren publikotasun aktibo homogeneoa lortzeko behar diren koordinazio-mekanismoak, irizpideak, estandarrak eta bitarteko teknologikoak.
5. Sailek, organismoek eta enteei sailaren barruan eskumen horizontalak dituen organo bati esleituiko dizkiote informazio publikoa biltzeko eta zabaltzeko eginkizunak, baldin eta lege substantiboak ez badiot beste organo bati esleitzen haiek kudeatzen duten informazioa argitaratzeko eskumena.

23. artikulua. Informazio publikora irispidea izateko eskubidea.

1. Informazio publikora irispidea izateko eskubidea gai horretako indarreko lege espezifikoaren arabera arautuko da.
2. «euskadi.eus» atariaren bitartez zabalduko da informazio publikora irispidea izateko eskubidea, eta bertan azalduko dira eskubide hori erabiltzeko kanalak, herritarrekiko interakziorako beste zerbitzu batzuetatik bereizita.

24. artikulua. Informazio publikora iristeko eskubidea.

1. Prozeduraren hasieran, eskubidea egingo da; horretarako, lehenik, informaziora iritsi nahi

el funcionamiento y control de su actuación pública.

2. La información a la que se refiere el apartado anterior estará accesible, al menos, en el portal «euskadi.eus», en la sede electrónica, en el portal de transparencia www.gardena.euskadi.eus y en el portal www.legegunea.euskadi.eus.
3. Los principios que guían la publicidad activa, las obligaciones en la materia y resto de regulaciones se regirán por la normativa específica vigente.
4. El órgano competente en Gobierno abierto establecerá los mecanismos de coordinación, los criterios, estándares y los medios tecnológicos necesarios para una homogénea publicidad activa de la información.
5. Los diversos departamentos, organismos y entes atribuirán a un órgano de los que ostentan competencias horizontales en el seno del departamento las funciones de recabar y difundir la información pública salvo que la ley sustantiva atribuya a otro órgano la competencia para la publicación de la información por ellos gestionada.

Artículo 23. El derecho de acceso a la información pública.

1. El ejercicio del derecho de acceso a la información pública se regirá por la legislación específica vigente en la materia.
2. A través de «euskadi.eus» se publicitará el derecho de acceso a la información pública y los canales para su ejercicio, diferenciándolo de otros servicios de interacción con la ciudadanía.

Artículo 24. Solicitud de acceso a la información pública.

1. El procedimiento se iniciará mediante solicitud, previa identificación de la persona que desea

duen pertsona identifikatu beharko da. Ahal dela elektronikoki egingo da, nahiz eta aurrez aurreko kanalen bidez edo posta arruntaren bidez ere egin daitekeen. Ez da beharrezkoa eskabidea arrazoitzea.

2. Erregistro elektronikoro korrean erregistratuko da eskabidea, eta izapidetze elektronikorako plataforma komunean izapidetuko da prozedura guztia.
3. Herritarrentzako arretaren eskumena duen organoak eskabide sailkatu eta helaraziko dio jarduketa-arlo edo gai horren eskumena duen organoari.
4. Arloa edo arloak kalifikatutakoan, gai horren eskumena duen sail, organismo edo enteari bidali behar zaio eskabidea, espedientea instruitu eta ebatz dezan.
5. Eskabideak sail, organismo edo ente bati baino gehiagori eragiten badie: eskatutako informazioa askotarikoa bada eta elkarri lotuta ez badago, espedientetan banatuko da, eskabideak eragindako arloak adina espedientetan, erantzuna arin kudeatu ahal izateko.

II. KAPITULUA. HERRITARRENTZAKO ARRETARAKO ADMINISTRAZIO-INFORMAZIOA

25. artikulua. Kontzeptua eta irismena.

1. Administrazio-informazioa bitarteko bat da, haren bidez herritarrek jakin dezaten beren eskubide, betebeharrak eta interes legítimo individual zein kolektiboak zein diren, eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabil ditzaten.
2. Administrazio-informazioak hizkera argian idatzita egon beharko du, hau da, erraz ulertzeko moduan, labur eta ondo antolatuta eman beharko da, eta bermatuko du dekretu honen 4. artikuluan adierazitako printzipioak betetzen direla.

acceder a la información, preferentemente por vía electrónica, pero también a través del canal presencial o por correo ordinario. No es necesario motivar la solicitud.

2. La solicitud se registrará en el registro electrónico general y todo el procedimiento se tramitará en la Plataforma Común de Tramitación Electrónica.
3. El órgano competente en atención a la ciudadanía tipificará y escalará la solicitud al órgano competente del área de actuación o materia implicada.
4. La calificación del área o áreas supondrá la remisión de dicha solicitud al departamento, organismo o ente competente en la materia para la instrucción del expediente y su resolución.
5. En el caso de que la solicitud afecte a varios departamentos, organismos o entes, si la información solicitada es diversa y no guarda relación entre sí, el expediente se dividirá en tantos expedientes como áreas implicadas por la solicitud haya al objeto de facilitar la gestión ágil de la respuesta.

CAPÍTULO II. INFORMACIÓN ADMINISTRATIVA PARA LA ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

Artículo 25. Concepto y alcance.

1. La información administrativa es el medio a través del cual la ciudadanía puede acceder al conocimiento de su derechos, obligaciones e intereses legítimos, individuales o colectivos, y a la utilización de los bienes y servicios públicos.
2. La información administrativa deberá estar redactada en lenguaje claro, es decir, deberá ser fácilmente comprensible, sucinta, bien organizada y asegurará el cumplimiento de los principios recogidos en el artículo 4 del presente Decreto.

Administrazioak zainduko du administrazio-informazioa bitarteko eta formatu egokietan eskuragarri egongo dela desgaitasuna duten pertsonen irispidean izateko eta ulertzeko moduan; horretarako, irakurketa errazeko beste bertsio batzuk eskainiko ditu beharrezkotzat jotzen badu.

3. Gai bakoitzaren eskumena duten administrazio-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte herritarrentzako administrazio-informazioa beren eskumeneko prozesuetan sar dadin, eta eginkizun horretan inplikatuko dituzte prozesu horietara atxikitako langileak, dekretu honetan xedatutako modua eta irismena kontuan hartuta.

4. Edukiari eta irismenari dagokienez, informazio bera izango da herritarrei arreta emateko modalitatea edozein dela ere –19. artikuluan arautua–.

Gai bakoitzaren eskumena duten administrazio-organoak dira informazio-iturriak, eta «euskadi.eus» atarian eta egoitza elektronikoa sortuko dute informazioa, baita eguneratuta mantendu ere. Halaber, hala badagokio, aldian-aldian eta denboraz, Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzura bidaliko dute.

5. Administrazioak bitarteko eta bide egokiak jarriko ditu jakin nahi den eta eskatzen den administrazio-informazio edo gai bakoitzerako. Komunikazio pertsonala erabiliko da baldin eta hala eskatu bada edo tratatu beharreko informazioaren konfidentzialtasunaren edo konplexutasunaren ondorioz hala behar bada eta eskatzailearekin hala adosten bada.
6. Emandako administrazio-informazioa orokorra, espezializatua edo partikularra izan daiteke edukiaren, irismenaren eta akreditazio-betekizunaren arabera.

26. artikulua. Administrazio-informazio orokorra.

1. Administrazio-informazio orokorraren helburua hau da: Euskal Autonomia Erkidegoko

La Administración velará para que la información administrativa esté disponible en medios y formatos adecuados para su acceso y comprensión por las personas con discapacidad, ofreciendo versiones alternativas de lectura fácil en los casos en que se considere necesario.

3. Los órganos administrativos competentes en cada materia adoptarán las medidas necesarias para que la información administrativa a la ciudadanía se integre en los procesos de su competencia, implicando en dicha función al personal adscrito a los mismos en la forma y con el alcance previsto en el presente Decreto.

4. La información será la misma en su contenido y alcance independientemente de cual sea la modalidad de atención a la ciudadanía de las reguladas en el artículo 19.

Los órganos administrativos competentes en cada materia son las fuentes de la información y elaborarán y mantendrán actualizada la misma en el portal «euskadi.eus» y en la sede electrónica y, en su caso, la remitirán periódicamente y con la antelación suficiente al Servicio de Atención a la Ciudadanía, Zuzenean.

5. La Administración dispondrá los medios y cauces adecuados a cada tipo de información administrativa o asunto que se desee conocer y se solicite. La comunicación personal se utilizará en el caso que así se haya solicitado y en aquellos otros en que la confidencialidad o complejidad de la información a tratar lo requiera y de esta forma se acuerde con la persona solicitante.

6. La información administrativa facilitada en función de su contenido, alcance y requisito de acreditación podrá ser de carácter general, especializada o particular.

Artículo 26. Información administrativa general.

1. La información administrativa general tiene por objeto ofrecer a la ciudadanía una visión global,

Administrazio publikoaren jardueraren ikuspegi orokorra, homogeneoa eta sistematizaturik ematea herritarrei, eta zerbitzu publikoak irispidean izateko eskubidea erraztea.

2. Administrazio-informazio orokorra hauek eratzen dute:

a) Organismo eta administrazio-unitateen identifikazioari, helburuei, eskumenei, egiturari, funtzionamenduari eta kokalekuari buruzkoa.

b) Herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jarduketak edo eskabideei xedapenak ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoei buruzkoa.

c) Zerbitzu publikoei eta prestazioei buruzkoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren harremanetan jakin behar duten beste edozein datu buruzkoa ere.

3. Zehazki, hauei buruzko informazioa hartuko du barnean:

a) Antolaketa-egitura eta eskumen-eremua, administrazio-organismo, -zerbitzu eta -unitateen direktorioa eta ordutegiak barne.

b) Ematen dituzten zerbitzu publikoak, kudeatzen dituzten prozedurak, izapidetze-modalitateak eta eskatzen den dokumentazioa, zerrenda publikoak, unitate arduradunak, bulegoen kokapena eta, oro har, herritarrei zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen dien informazio guztia, eta muga bakarrak izango dira eskumen-esparrutik, eskura dituzten bitarteko materialetatik eta herritarrek hautatutako komunikazio-sistematik eratorritakoak.

Zerbitzuen eta Prozeduren Katalogo Korporatiboan (61. artikuluan dago araututa) jasotako zerbitzuak eta prozedurak, zehazten den moduan, eta, gutxienez, horien

homogénea y sistematizada de la actividad de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y facilitar su derecho de acceso a los servicios públicos.

2. Constituye información administrativa de carácter general:

a) La relativa a la identificación, fines, competencias, estructura, funcionamiento y localización de organismos y unidades administrativas.

b) La referida a los requisitos jurídicos o técnicos que las disposiciones impongan a los proyectos, actuaciones o solicitudes que la ciudadanía se proponga realizar.

c) La referente a los servicios públicos y prestaciones, así como a cualesquiera otros datos que aquellos tengan necesidad de conocer en sus relaciones con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3. En concreto, comprenderá información sobre:

a) La estructura organizativa y el ámbito competencial, incluyendo el directorio de los órganos, servicios y unidades administrativas, así como sus horarios.

b) Los servicios públicos que prestan, procedimientos que gestionan, modalidades de tramitación y documentación exigida, listas públicas, unidades responsables, localización de dependencias y, en general, toda aquella información que permita a la ciudadanía relacionarse con los distintos servicios sin más limitación que las derivadas de su ámbito competencial, de los medios materiales disponibles y del sistema de comunicación elegido por la ciudadanía.

Los servicios y procedimientos incluidos en el Catálogo Corporativo de Servicios y Procedimientos regulado en el artículo 61 en la forma que se determine, que incluirá como

izapideak, epeak, dokumentuak, organo arduradunak eta gainerako oinarrizko elementuak.

c) Oro har, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekin edo haren jarduketa-eremuren batekin duten harremanean jakiteko eskubidea duten beste edozein datu, baldin eta administrazio-informazio espezializatua edo partikularra ez bada.

4. Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzuak emango du administrazio-informazio orokorra, bai aurrez aurre, bai telefonoz, bai kanal elektronikoaren «euskadi.eus» atari-sarean –44. artikuluan arautua–.

5. Administrazio-informazio orokorra, eskuragarri badago, inolako legitimaziorik egiaztatu beharrik izan gabe emango zaie herritarrei, eta berehala emango da, atzerapenik gabe eta erantzuteko denbora mugatu gabe.

6. Herritarrek eskatutako administrazio-informazio orokorra ez badago kanal erabilgarrietako batean ere, Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzuak gaiaren edo jarduketa-arloaren eskumena duen administrazio-organismoari eskatuko dio. Organo horrek berehala erantzun beharko dio aipatutako zerbitzuari, eta informazioa eman eta argitaratuko du kanal erabilgarri guztietan, bai eta «euskadi.eus»en ere.

27. artikulua. Administrazio-informazio espezializatua.

c) Las direcciones de correo electrónico del órgano, unidad o personal que se considera que cuenta con competencias en la materia objeto de consulta o comunicación, sin que exista forma especial predeterminada o normalizada para su cumplimentación y remisión.

d) «euskadi.eus» web-atari instituzionalean ageri diren mezularitza elektronikoko sistemak – banakoak zein kolektiboak– eta testu edo ahots bidezko txatak.

d) Los sistemas de mensajería electrónica de tipo individual o colectivo y chats de texto o voz que figuren en el portal web institucional «euskadi.eus».

4. Herritarrei arreta emateko organo eskudunak artikulua honetan adierazitako komunikazioak antola edo arau ditzake, eta irizpideak, erabilera-arauak eta gomendioak zehaztu ere bai.

4. El órgano competente en atención a la ciudadanía podrá ordenar o regular las comunicaciones contempladas en este artículo, así como definir los criterios, normas de uso y recomendaciones.

5. Komunikazio elektroniko informalei atari korporatiboan eskura dauden informazio, zerbitzu eta edukiak erabiltzeko baldintzak eta haien gaineko erantzukizuna-aplikatuko zaizkie.

5. A las comunicaciones electrónicas informales se aplicarán las condiciones de uso y responsabilidad por la información, servicios y contenidos disponibles a través del portal corporativo.

110. artikulua. Herritarrei arreta ematearen arloko berrikuntza.

Artículo 110. Innovación de la atención a la ciudadanía.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak sustatuko du herritarrentzako arretaren arloa etengabe bilakatzen, berritzen eta hobetzen jarraitzea, ez bakarrik etorkizuneko aldaketa sozial eta teknologikoetara egokitzeko, baizik eta, modu proaktiboan, zerbitzu pertsonalizatuak, autozerbitzurako espazio publikoak, Europako barne-merkatuko zerbitzu-leihatila bakarra eta beste hainbat eskaintzeko.

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi promoverá que la atención a la ciudadanía se mantenga en permanente proceso de evolución, innovación y mejora, de forma que no solo se adapte a los futuros cambios sociales y tecnológicos, sino que, de forma proactiva, ofrezca servicios personalizados, espacios públicos de autoservicio, ventanilla única para los servicios en el mercado interior europeo, etc.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak dagozkion jarduerak egitean lortzen duen informazioa sektore publiko

2. La información que la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi obtenga en el desarrollo de su actividad se configurará

autonomikoaren aktibo gisa eratuko da, eta herritarren alde egiteko babestu eta kudeatuko da.

Administrazioak, gainera, informazio-aktibo hori indartuko du, prozesuak bizkortu eta automatizatzeko, zerbitzu publikoak proaktiboagoak eta pertsonalizatuagoak izateko eta, oro har, aktiboaren kalitatea hobetzen duen beste edozertarako.

como un activo del sector público autonómico y será protegido y gestionado para el beneficio de la ciudadanía.

La Administración potenciará dicho activo de información para la agilización y automatización de los procesos, la proactividad y personalización de servicios públicos y cualquier otro uso para mejorar su calidad.

X. TITULUA. HERRITARREI ARRETA EMATEAREN ARLOKO GOBERNANTZA

I. KAPITULUA. HERRITARRENTZAKO ARRETAREN KALITATEA

111. artikulua. Herritarrentzako arreta-zerbitzuen kalitatea.

Herritarrei arreta emateko administrazio-organismoak arreta-zerbitzuen kalitatea bultzatuko du, egiaztatze-, akreditazio- edo ebaluazio- sistemen bitartez. Sistema horiek, hala badagokio, hurrengo artikuluan arautzen diren zerbitzu-kartetan bilduko dira.

Horretarako, organo horrek behar diren prozesuak, erakunde-egitura eta informazio-sistematik izango ditu.

112. artikulua. Zerbitzu-Kartak.

1. Herritarrei arreta emateko administrazio-organismoak zerbitzu-kartak edo dokumentu baliokideak onar ditzake, non konpromisoak, helburuak eta adierazleak ezarriko baitira, denak ala denak bereizita herritarrentzako arreta-kanalen edo -modalitateen arabera, sexuaren eta hizkuntzaren arabera edo arreta-zerbitzuak ebaluatzeko eta herritarrek haiekiko duten gogobetetasuna neurtzeko balioko duten beste alderdi batzuen arabera.
2. Zerbitzu-kartak edo dokumentu baliokideak egoitza elektronikoan edo «euskadi.eus» web-

TÍTULO X. LA GOBERNANZA DE LA ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

CAPÍTULO I. CALIDAD DE LA ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

Artículo 111. Calidad de los servicios de atención a la ciudadanía.

El órgano administrativo de atención a la ciudadanía promoverá la calidad de los servicios de atención mediante sistemas de certificación, acreditación o evaluación que se integrarán, en su caso, en las cartas de servicios reguladas en el artículo siguiente.

Para ello, se dotará a dicho órgano de los procesos, estructura organizativa y sistemas de información necesarios.

Artículo 112. Cartas de Servicios.

1. El órgano administrativo de atención a la ciudadanía podrá aprobar cartas de servicios o documentos equivalentes, que establecerán, compromisos, objetivos, e indicadores desagregados por canales o modalidades de atención a la ciudadanía, sexo, idioma, u otros aspectos que se determinen y que permitan evaluar los servicios de atención y la satisfacción de la ciudadanía con los mismos.
2. Las cartas de servicios o documentos equivalentes se publicarán en la sede

orrialdean argitaratuko dira, eta, hala badagokio, gardentasun-atarian.

electrónica o en «euskadi.eus» y, en su caso, a través del portal de transparencia.

113. artikulua. Herritarrei arreta emateko zerbitzuaren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.

Artículo 113. Control, seguimiento y evaluación del servicio de atención a la ciudadanía.

1. Herritarrei arreta emateko eskumena duen organoak herritarrei arreta emateko sistema integralaren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, prozesuak eta zerbitzu publikoak etengabe hobetu ahal izateko.

1. El órgano competente en materia de atención a la ciudadanía llevará a cabo el control, seguimiento y evaluación del Sistema Integral de Atención Ciudadana que permita una mejora continua de los procesos y del servicio público.

2. Herritarrei arreta emateko organo eskudunak zehaztuko dituen informazio-sistemez gain, herritarrei arreta emateko sistema integralaren osagai eta aplikazioek –sistema hori 23. artikuluan arautua dago– sistema hauek izango dituzte: denbora errealeko monitorizazio-sistemak eta zerbitzua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko adierazleen datuak eta informazioa bildu eta emateko sistema automatizatuak.

2. Además de los sistemas de información que se determinen en el órgano competente en atención a la ciudadanía, los componentes y aplicaciones del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía regulado en el artículo 23 dispondrán de sistemas de monitorización en tiempo real y sistemas automatizados de recopilación y suministro de datos e información de los indicadores para el control y seguimiento del servicio.

Bi sistema mota horiek beharrezko informazioa emango diote herritarrei arreta emateko eskumena duen organoaren kalitate-sistemaren aginte-taulari.

Ambos tipos de sistemas aportarán la información necesaria al cuadro de mando del sistema de calidad del órgano competente en atención a la ciudadanía.

3. Honako hauek dira sistemaren parte:

3. En todo caso, forman parte del sistema:

a) Herritarrei arreta emateko sistema integralaren autoebaluazioa, sistema horren osagaiez arduratzen den administrazio-organoko bakoitzeko.

a) La autoevaluación del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía por cada uno de los órganos administrativos responsables de sus componentes.

b) Kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa, titulu honen II. kapituluaren arautzen dena.

b) El Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias que se regula en el Capítulo II del presente Título.

c) Herritarrei arreta emateko organo eskudunak egingo dituen jarraipen- eta ebaluazio-txosten estatistikoak, 117. artikuluan arautzen direnak, zeinak Eusko Jaurlaritzako sailtako zerbitzu-zuzendaritza guztietara bidaliko baitira eta Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordeari jakinaraziko baitaizkio.

c) Los informes estadísticos de seguimiento y evaluación que elaborará el órgano competente en atención a la ciudadanía que se regulan en el artículo 117 y que se remitirán a todas las Direcciones de Servicios de los departamentos del Gobierno Vasco y de los que se dará cuenta a la Comisión Interdepartamental de Gobernanza, Transparencia y Participación Ciudadana.

d) Entzute aktiboko sistema, 116. artikuluan arautzen dena.

d) El sistema de escucha activa que se regula en el artículo 116.

114. artikulua. Herritarrei arreta emateko administrazio-informazioaren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.

Artículo 114. Control, seguimiento y evaluación de la información administrativa para la atención de la ciudadanía.

1. Aldian behin, 32. artikulua 1. apartatuaren aipatuta dauden informazioaren kalitate-irizpideak ebaluatuko dira.

1. Serán objeto de evaluación periódica los criterios de calidad de la información administrativa del apartado 1 del artículo 32.

2. Horretarako, urteko txostena egingo da, eta han ebaluatuko dira, oro har, informazioari emandako tratamendua, datu estatistiko globalak eta hobetu daitezkeen neurriak; bereziki, alderdi hauei buruzko iritzia emango da:

2. Con este fin, elaborará un informe anual en el que evaluará, con carácter general, el tratamiento dado a la información, los datos estadísticos globales y las medidas susceptibles de mejora y, en particular, se pronunciará sobre:

a) Herritarrei emandako informazioaren edukia eta erabilitako komunikazio-kanalak.

a) Los contenidos de información ofrecidos a la ciudadanía y los canales de comunicación.

b) Herritarrei emandako informazioaren homogeneotasuna, osotasuna eta eguneratzea.

b) La homogeneidad, integridad y actualización de la información ofrecida a la ciudadanía.

c) Herritarrei ematen zaien administrazio-informazioa hobetzeko ezarri diren neurrien eraginkortasuna eta jarduketa-ildoak.

c) Las líneas de actuación y la efectividad de las medidas implantadas para mejorar la información administrativa a la ciudadanía.

d) Sektore publiko autonomikoko organoen arteko lankidetzak.

d) La colaboración entre los distintos órganos del sector público autonómico.

e) Desgaitasuna duten pertsonen informazioa irispidean izatea bermatzen duten bitartekoak eta sistemak.

e) Los medios y sistemas para garantizar la accesibilidad a la información a las personas con discapacidad.

f) Dekretu honen IV. tituluko xedapenen betetze-maila.

f) El cumplimiento de las disposiciones del título IV de este Decreto.

3. «www.gardena.eus» gardentasun-atarian argitaratuko da txostena, eta administrazio-organismo inplikatuak kontuan hartuko dute, beharrezkoak diren hobekuntzak ezartzeko.

3. Este informe se publicará en el Portal de Transparencia «www.gardena.eus» y se tendrá en cuenta al objeto de implantar las mejoras que sean necesarias por los órganos administrativos implicados.

115. artikulua. Administrazio elektronikoaren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.

Artículo 115. Control, seguimiento y evaluación de la Administración electrónica.

Administrazio elektronikoaren arloko organismo eskudunak adierazle-sistema bat eta agente-

El órgano competente en Administración electrónica dispondrá de un sistema de

koadro bat izango ditu, zerbitzu komun en eta, bereziki, izapidetze elektronikoko plataformaren erabilerari buruz.

116. artikulua. Entzute aktiboa.

1. Hauek hartzen dira, besteak beste, entzute aktiboko sistematizat: herritarren gogobetetasuna neurtzeko inkestak; galde-sortak, eta telefonoaren edo aurrez aurreko kanalaren bidez zuzenean herritarrari entzutea.
2. Herritarrei arreta emateko arloaren organo eskudunak eskari- eta gogobetetasun-analisia egingo du urtean behin, eta horko emaitzak txosten batean bilduko ditu, zeina Zuzenean zerbitzuaren web-orrialdean eta «gardena.eus» gardentasun-atarian argitaratuko baita eta Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordeari bidaliko baitzaio.
3. Gogobetetasun-inkestak segmentatu egingo dira, kontuan hartuz herritarren nortasuna – fisikoa edo juridikoa –, hizkuntza, sexua eta arreta-kanala.

117. artikulua. Aldizkako jarraipen- eta kudeaketa-txostenak.

1. Herritarrei arreta emateko organo eskudunak jarraipen- eta kudeaketa-txostenak egingo ditu hilean behin, non aztertuko baitira, besteak beste, kexei eta iradokizunei emandako tratamendua, datu estatistiko globalak eta hobetu daitezkeen neurriak.

Herritarrei arreta emateko lurralde-bulegoen koordinatzaileei bidaliko zaizkie txostenak, bai eta Eusko Jaurlaritzako sailtako zerbitzu-zuzendaritzei eta organismo autonomoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako organo baliokideei ere.

2. Administrazio elektronikoen arloko organo eskudunak izapidetze elektronikorako plataforma komunaren erabilerari buruzko jarraipen- eta kudeaketa-txostenak egingo ditu

indicadores y cuadro de mando sobre la utilización de los servicios comunes y, específicamente, de la Plataforma de Tramitación Electrónica.

Artículo 116. Escucha activa.

1. Constituyen sistemas de escucha activa las encuestas de satisfacción de la ciudadanía, los cuestionarios y la escucha directa de los canales telefónico y presencial, entre otros.
2. El órgano competente en materia de atención a la ciudadanía realizará anualmente un análisis de la demanda y de satisfacción cuyos resultados se recogerán en un informe que se publicará en la página web de Zuzenean y en el portal de transparencia «gardena.eus» y que será remitido a la Comisión Interdepartamental de Gobernanza, Transparencia y Participación Ciudadana.
3. Las encuestas de satisfacción segmentarán en función de la personalidad física o jurídica de la ciudadanía, idioma, sexo y canal de atención.

Artículo 117. Informes periódicos de seguimiento y gestión.

1. El órgano competente en atención a la ciudadanía elaborará mensualmente informes de seguimiento y gestión en los que se analizará, entre otros, el tratamiento dado a las quejas y sugerencias, los datos estadísticos globales y las medidas susceptibles de mejora.

Dichos informes serán remitidos a todas las personas coordinadoras de las oficinas territoriales de atención a la ciudadanía y a las Direcciones de Servicio de los departamentos del Gobierno Vasco y órganos equivalentes de los organismos autónomos y entes públicos de derecho privado.

2. El órgano competente en Administración electrónica elaborará mensualmente informes de seguimiento y gestión del uso de la Plataforma Común de Tramitación Electrónica

hilean behin, datu estatistiko globalak eta hobetu daitezkeen neurriak jasota.

3. Sei hilean behin, aurreko apartatuetan adierazi diren txostenen berri emango zaio Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Batzordeari.
4. Herritarrei ematen zaien arretari buruz eta administrazio elektronikoa buruz egiten den txosten, estatistika, azterlan eta auditoria orotan genero-ikuspegia txertatuko da, eta, horrez gainera, datuak sexuaren arabera eta erabilitako hizkuntzaren arabera bereiziko dira, hala ezarrita baitago, hurrenez hurren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean.

Herritarrentzako arretaren eta administrazio elektronikoen gaineko eskumenak dituzten organoek urteko txosten bana egingo dute, nork bere arloei dagokienez; Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Batzordeari bidaliko dizkiote txostenak, eta «euskadi.eus» webgunean eta «gardena.eus» gardentasun-atarian argitaratuko dira.

Herritarrei emandako arretari buruzko txostena Arartekoari ere bidaliko zaio, jakinaren gainean egon dadin. Besteak beste, alderdi hauek bilduko ditu txosten horrek: Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroari dagokion informazioa, jasotako kexak eta iradokizunak eta eskariaren eta gogobetetasunaren analisia.

5. Herritarrei emandako arretari buruzko urteko txostenean, gutxienez alderdi hauek analizatuko dira, globalki eta sailaren, organismoen eta enteen arabera bereizita:
 - a) Kexaren edo iradokizunaren motibazioa edo arrazoa.

con los datos estadísticos globales y las medidas susceptibles de mejora.

3. Semestralmente se dará cuenta de los informes de los apartados anteriores a la Comisión de Gobernanza, Transparencia y Participación Ciudadana.
4. Todos los informes, estadísticas, estudios y auditorías que se realicen sobre la atención a la ciudadanía y Administración electrónica incluirán la perspectiva de género, recogerán y analizarán los datos desagregados por sexo y por idioma utilizado, tal y como señalan respectivamente el artículo 16 de la ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

Los órganos competentes en atención a la ciudadanía y Administración electrónica elaborarán un informe anual de gestión en sus respectivas áreas, que se elevarán para su conocimiento a la Comisión de Gobernanza, Transparencia y Participación Ciudadana y serán publicados en «euskadi.eus» y en el portal de transparencia «gardena.eus».

El informe de atención a la ciudadanía se remitirá así mismo al Ararteko para su conocimiento. Dicho informe incluirá, entre otros, la información referente al Centro de Atención a las Personas Usuaris de los Servicios Electrónicos, a las quejas y sugerencias recibidas y el análisis de la demanda y satisfacción.

5. Entre otros aspectos, el informe anual de atención a la ciudadanía incluirá el análisis global y desagregado por departamentos, organismos y entes de, al menos los siguientes extremos:
 - a) La motivación o causa de la queja o sugerencia.

b) Kexa edo iradokizuna errepikatzen ote den eta zenbat aldiz, motaren arabera bereizita.

c) Proposatu diren neurri zuzentzaileak eta hobekuntzakoak, eta neurrien ezarpen-maila.

6. Txostenak efikazia- eta efizientzia-maila handienaz egin ahal izateko, herritarrei arreta emateko sistema integralaren aplikazio guztiak konfiguratuko dira halako eran, non ahalik eta gehien automatizatuko baitira kontrolatu eta jarraitu beharreko alderdi, aldagai eta estatistikak.

118. artikulua. Herriarrek zerbitzu publikoetan parte hartzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak erraztu eta bermatuko du herritarrek parte hartuko dutela zerbitzu publikoen diseinuaren, garapenaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren ziklo osoan, gobernu irekiaren eta dekretu honen printzipioei jarraituz.

2. Zerbitzu eta prozedura bakoitzaren organo eskudunen egitekoa da herritarrek zerbitzu publikoen kudeaketan izan behar duten parte-hartzea gauzatzea, betiere gobernu irekiaren arloko administrazio-organoen eskudunarekin koordinatuta.

119. artikulua. Administrazio elektronikoaren behatokia.

Administrazio elektronikoaren arloko organo eskudunak beteko ditu atxikita dagoen saileko estatistika-organorekin koordinatuta, Administrazio Elektronikoaren Behatokiaren eginkizunak beteko ditu, Euskadiko Administrazio Elektronikoaren egoera aztertze eta zabaltzeko, honako hauen bidez:

a) Administrazio elektronikoaren adierazleak aztertzea, laburtzea eta argitaratzea.

b) Aldizkako azterlanak egitea eta emaitzak txostenetan argitaratzea, EAEko Administrazio Publikoan administrazio elektronikoaren garapen-maila eta IKTen ezarpena eta erabilera

b) La reiteración y frecuencia por tipo de queja o sugerencia.

c) Las medidas correctoras y de mejora propuestas y su grado de implantación.

6. Para posibilitar dichos informes con la máxima eficacia y eficiencia se configurarán todas las aplicaciones del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía de forma que los aspectos, variables y estadísticas objeto de control y seguimiento se automaticen al máximo posible.

Artículo 118. La participación de la ciudadanía en los servicios públicos.

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi facilitará y garantizará la participación de la ciudadanía en todo el ciclo de diseño, desarrollo, implantación y evaluación de los servicios públicos, siguiendo los principios del Gobierno abierto y de este Decreto.

2. Corresponde a los órganos competentes de cada servicio y procedimiento en coordinación con el órgano administrativo competente en Gobierno abierto la materialización de dicha participación en la gestión de los servicios públicos.

Artículo 119. Observatorio de Administración electrónica.

El órgano competente en Administración electrónica, en coordinación con el órgano estadístico del Departamento al que esté adscrito realizará las funciones de Observatorio de Administración electrónica de análisis y difusión de la situación de la Administración Electrónica en Euskadi mediante:

a) Análisis, síntesis y publicación de indicadores de administración electrónica.

b) Realización de estudios periódicos y publicación de sus resultados en informes que evalúan el grado de desarrollo de la administración electrónica y la implantación y uso de las TIC en

ebaluatzeko, administrazio-eremu guztiak kontuan hartuta.

- c) Aldizkariak argitaratzea, administrazio elektronikoaren adierazle nagusien hainbat iturri bilduz, administrazio horren garapenari buruzko alderdi zehatzei buruzko ohar teknikoak eta administrazio elektronikoaren alderdi zehatzei buruzko gaikako azterlanak eginez.
- d) Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea gai horiei buruz.

II. KAPITULUA. IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

120. artikulua. Izaera eta irismena.

1. Edonork –pertsona fisikoa zein juridikoa izan– aurkez ditzake iradokizunak, kexak eta erreklamazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren administrazio-zerbitzu eta -unitateen funtzionamenduari buruz.
2. Kexa, iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko eskubideari publizitatea emango zaio, eta horiek aurkezteko moduak eta bitartekoak zehaztuko dira sarrera bakarrean, egoitza elektronikoan eta sail, erakunde eta enteentzat atarietako orrialde guztietan, bai eta «gardena.eus» atarian ere.

Iradozikunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko moduei buruzko informazioa argia, erraza eta herritarrentzat guztiz eskuragarria izango da.

3. Iradozikun gisa hartuko dira zerbitzuen antolamendua edo kalitatea hobetzeko aurkeztu diren ekimen eta proposamenak eta, bereziki, izapideak erraztu, gutxitu edo desagerrarazten lagundu dezaketenak, gastu publikoaren errendimendua edo aurrezkia areagotu dezaketenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoarekiko harremanei buruz herritarrek duten

la Administración Pública de Euskadi considerando los diferentes ámbitos administrativos.

- c) Publicación boletines periódicos con una recopilación de diversas fuentes de los principales indicadores de la administración electrónica, notas técnicas sobre aspectos concretos de su desarrollo y estudios temáticos sobre aspectos concretos de la de la misma.
- d) Colaboración con otras entidades sobre dichas materias.

CAPÍTULO II. SUGERENCIAS, QUEJAS Y RECLAMACIONES

Artículo 120 Naturaleza y alcance.

1. Cualquier persona, física o jurídica, puede presentar una sugerencia, queja, y reclamación sobre el funcionamiento de los servicios y unidades administrativas de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
2. Se dará publicidad al derecho a presentar sugerencias, quejas y reclamaciones y las formas y medios para presentarlas en el punto de acceso único, en la sede electrónica y en todas las páginas de los portales de los departamentos, organismos y entes, así como en el portal de transparencia «gardena.eus».

La información sobre las formas de presentación de sugerencias, quejas y reclamaciones será clara, sencilla y plenamente accesible a la ciudadanía.

3. Tendrán la consideración de sugerencias todas aquellas iniciativas y propuestas presentadas que tengan como finalidad mejorar la organización y/o la calidad de los servicios y, en especial, aquellas que puedan contribuir a simplificar, reducir o eliminar trámites, incrementar el rendimiento o el ahorro del gasto público o cualquier otra medida que suponga un mayor grado de satisfacción de la ciudadanía

gogobetetasun-maila handitzen duen beste edozein neurri.

Iradokizuna aurkeztu nahi duenak ez du bere burua identifikatu edo akreditatu beharrik izango; postontzi elektroniko orokorraren bidez bideratuko dira iradokizunak. Edonola ere, herritarrak helbide elektroniko bat jakinarazten badu iradokizunari emandako erantzuna jaso ahal izango du.

4. Kexa gisa hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren administrazio-unitateren baten funtzionamenduarekin edo zerbitzu baten prestazioarekin ados ez daudela edo pozik ez daudela jakinarazteko herritarrek egiten dituzten adierazpenak, batez ere zerikusia badute atzerapenekin, arretarik ezarekin edo jarduteko moduan gertatutako arazo edo gabeziekin:

- a) Kexa-mota dela-eta hura aurkezten duen pertsonak ez badu bere burua identifikatu edo akreditatu beharrik, postontzi elektroniko orokorraren bidez edo erregelamenduz ezartzen diren bestelako bitartekoak erabiliz bideratuko da kexa. Edonola ere, herritarrak helbide elektroniko bat jakinarazten badiu Administrazioari, kexari emandako erantzuna jaso ahal izango du. Sektorre publikoko gailu mugikorren webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren 10.2.a artikuluan araututako irisgarritasun-eskakizunei buruzko komunikazioak sartzen dira.
- b) Kexa-mota dela-eta nahitaezkoa bada hura aurkezten duen pertsonak bere burua identifikatu eta akreditatzea, erregistro elektroniko orokorraren bidez edo egoitza elektronikoan horretarako prestatutako administrazio-prozeduraren bidez bideratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeriaren berme guztiekin, informazio irisgarriaren eskaerak eta sektore publikoko

en sus relaciones con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las sugerencias no requieren identificación y acreditación de la persona que las interpone y se canalizarán a través del buzón electrónico general. No obstante, se ofrecerá la posibilidad de respuesta si la persona que la formula suministra una dirección de correo electrónico.

4. Tendrá la consideración de queja la expresión de una disconformidad o insatisfacción con la prestación de algún servicio o el funcionamiento de alguna unidad administrativa de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, especialmente retrasos, desatenciones o cualquier otra anomalía en el funcionamiento o deficiencia en su actuación:

- a) Las quejas que no requieran identificación y acreditación de la persona que las interpone se canalizarán a través del buzón electrónico general u otros medios que se determinen reglamentariamente. No obstante, se ofrecerá la posibilidad de respuesta si la persona que la interpone suministra una dirección de correo electrónico a la Administración. Se incluyen las comunicaciones sobre requisitos de accesibilidad reguladas en el artículo 10.2.a Real Decreto 1112/2018, de 7 de septiembre, sobre accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles del sector público.
- b) Las quejas que requieran identificación y acreditación de la persona que las interpone se canalizarán a través del registro electrónico general o el procedimiento administrativo habilitado al efecto en sede electrónica con todas las garantías de la legislación sobre el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, incluyendo las solicitudes de información accesible y quejas reguladas en el artículo 10.2.b Real Decreto

gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren 10.2.b artikuluan araututako kexak barne.

Kexen administrazio-prozedura bakarra, zeharkakoa eta korporatiboa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko osorako.

5. Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira Osakidetza–Osasun Zerbitzuaren funtzionamenduari buruz aurkezten diren iradokizunak, kexak eta erreklamazioak eta arlo horri dagokion araudi espezifikoak duten beste zuzenbide pribatuko erakunde publikoak batzuei eragiten dietenak.

6. Honako hauek ez dira kexatzat hartuko:

a) Herritarrek aurkezten dituzten salaketak legezkotasunaren aurka arau-haustekak edo irregulartasunak gertatu izanagatik, baldin eta horietatik Administrazio langileen diziplina-erantzukizuna ondoriozta badaiteke; izan ere, halakoetan, organo eskudunek dagozkien ikerketak eta jarduketak egin beharko dituzte.

b) Herritarrek eskariak egiteko eskubidea berariaz argudiatuz aurkezten dituzten eskaerak araudi espezifikoaren arabera eraenduko dira –eskubide hori Eskariak Egiteko Eskubidea Arautzeko azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan dago araututa–.

c) Agintariek edo langile publikoek aurkezten dituzten kexak Administrazioan duten zerbitzu-prestazioaren harremanaren eremuan.

d) Sare sozialen bidez Administrazioari heltzen zaizkion iruzkin negatiboak. Nolanahi ere, halakoetan, Administrazioak herritarrei jakinaraz diezaike zer kanal erabil ditzaketen hobekuntza-iradokizun bat edo kexa bat aurkezteko.

1112/2018, de 7 de septiembre, sobre accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles del sector público.

El procedimiento administrativo de quejas será único, de carácter transversal y corporativo para toda la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

5. Quedan fuera del ámbito de aplicación de este Decreto las sugerencias, quejas y reclamaciones que se planteen sobre el funcionamiento del Servicio de Salud Osakidetza y las que afecten a otros entes públicos de derecho privado que dispongan de una regulación específica en la materia.

6. No tendrán la consideración de quejas:

a) Las denuncias que pueda presentar la ciudadanía por las posibles irregularidades o infracciones a la legalidad de las que pueda derivar responsabilidad disciplinaria del personal al servicio de la Administración, las cuales darán lugar a las correspondientes investigaciones y actuaciones por parte de los órganos competentes.

b) Las peticiones realizadas por la ciudadanía invocando expresamente el derecho de petición regulado en la Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, reguladora del Derecho de Petición, se regirán por su normativa específica.

c) Las quejas que formulen las autoridades o el personal empleado público en el marco de su relación de prestación de servicios en la Administración.

d) Los comentarios negativos que puedan llegar a la Administración a través de las redes sociales. No obstante, en este caso la Administración podrá informar a la ciudadanía de los distintos canales a través de los que podrá formular una sugerencia de mejora o queja.

7. Halako kexa bat aurkezten duten herritarrek beti izango dute aukera Arartekoaren aurrean ere kexa bat aurkezteko, Arartekoa arautzen den legean adierazitako baldintzetan.

8. Kexak ez dira inoiz hartuko salaketatzat, administrazio-erreklamaziotzat edo errekurtsotzat, auzibide zibil edo laboralaren aurreko erreklamaziotzat, Administrazioaren ondare-erantzukizunagatiko erreklamaziotzat edo erreklamazio ekonomiko-administratibotzat; beraz, kexa bat aurkezteak ez ditu etengo indarrean dauden araudian ezarritako epeak.

9. Kexa bat aurkezteak ez die eragotziko edo baldintzatuko herritarrei dagozkien erreklamazio eta errekurtsioak edo akzio administratibo zein judizialak baliatzea.

10. Administrazio-egintza bati aurka egitea edo kontraesanean egotea erreklamaziotzat joko da. Erreklamazioak jarri dituen pertsona identifikatu eta egiaztatu behar duten erreklamazioak, eta postontzi elektronikoro korrraren edo egoitza elektronikokoan horretarako gaitutako administrazio-prozeduraren bidez bideratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeriaren berme guztiekin.

Erreklamazioen administrazio-prozedura bakarra, zeharkakoa eta korporatiboa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko osorako.

121. artikulua. Kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa.

1. Aurkezten diren kexa eta iradokizunak eta halakoak jaso, izapidetzearekin eta ebaztearekin zerikusia duten datuak kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboaren bidez kudeatuko dira espezifikoki, modu integratuan eta korporatiboan –herritarrei arreta emateko

7. La presentación de estas quejas por parte de la ciudadanía será, en todo caso, compatible con la presentación de quejas ante el Ararteko, en los términos previstos en su ley reguladora.

8. En ningún caso las quejas tendrán carácter o naturaleza de denuncia, reclamación o recurso administrativo, o de reclamación previa a la vía judicial civil o laboral, reclamaciones por responsabilidad patrimonial de la Administración ni reclamaciones económico-administrativas, por lo que su presentación no interrumpe los plazos establecidos en la normativa vigente.

9. Las quejas no impiden ni condicionan el ejercicio de cuantas reclamaciones y recursos o acciones de carácter administrativo o judicial puedan corresponder a la ciudadanía.

10. Tendrá la consideración de reclamación la manifestación de la oposición o contradicción a un acto administrativo. Las reclamaciones requieren identificación y acreditación de la persona que las interpone y se canalizarán a través del buzón electrónico general o el procedimiento administrativo habilitado al efecto en sede electrónica con todas las garantías de la legislación sobre el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El procedimiento administrativo de reclamaciones será único, de carácter transversal y corporativo para toda la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 121. Sistema corporativo de quejas y sugerencias.

1. Las quejas y sugerencias que se formulen, así como los datos relacionados con su recepción, tratamiento y resolución, se gestionarán de forma específica, integrada y corporativa en el Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias, que forma parte del Sistema Integral de Atención a la Ciudadanía.

sistema integralaren parte da kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa-.

2. Herritarrei arreta emateko organo eskudunak sortu, kudeatu eta mantenduko du kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboa.
2. El órgano competente en atención a la ciudadanía será el responsable de la creación, gestión y mantenimiento del Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias.
3. Kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboak aukera emango du:
 - a) Sistemara heltzen diren kexa eta iradokizunak aztertzea eta, gaia zein den, dagokion organora edo administrazio-unitatera bideratzea.
 - a) Analizar las quejas y las sugerencias que lleguen al sistema y canalizarlas a los órganos y a las unidades administrativas que corresponda por razón de la materia.
 - b) Administrazio-organoei eta -unitateei emandako erantzunen jarraipena egitea eta erantzuteko epeak betetzen direla kontrolatzea.
 - b) Realizar el seguimiento de las respuestas de los órganos y de las unidades administrativas y controlar el cumplimiento de los plazos de respuesta.
 - c) Sistemak jartzea herritarren eskura, adieraz dezaten zenbateraino dauden conforme jasotako erantzunarekin.
 - c) Facilitar los sistemas que permitan a la ciudadanía manifestar el grado de satisfacción por la respuesta recibida.
 - d) Kexa eta iradokizunen kudeaketari buruzko aldizkako ebaluazio-txostenak egitea.
 - d) Elaborar los informes periódicos de evaluación de la gestión de las quejas y a las sugerencias.
 - e) Erregelamendu bidez zehazten diren beste eginkizun batzuk.
 - e) Otras que se determinen reglamentariamente.
4. Aurreko apartatuaren d letran aipatzen diren txostenetan alderdi hauek jasoko dira gutxienez:
 - a) Aurkeztutako kexa eta iradokizun kopurua.
 - a) Número de quejas y sugerencias presentadas.
 - b) Kexaren edo iradokizunaren gaia edo arrazoia.
 - b) Materia o motivo de la queja o sugerencia.
 - c) Kexak edo iradokizunak hizpide duen zerbitzu publikoa zein administrazio-organok ematen duen.
 - c) Órgano administrativo que presta el servicio público sobre el cual versa la queja o sugerencia.
 - d) Erantzuteko behar izan den batez besteko denbora.
 - d) Tiempo medio de respuesta.
 - e) Aurkeztutako kexa eta iradokizunen kopuru totala hartuta, erregelamendu bidez
 - e) Porcentaje del número total de quejas y sugerencias presentadas, de las que se han

adierazitako epearen barruan erantzun direnen ehunekoa.

contestado dentro del plazo reglamentariamente previsto.

f) Kexa eta iradokizunak erregistratzetik, sailkatzetik eta aztertzetik eratortzen diren datuak 117. artikuluan araututako aldizkako kudeaketa-txostenetan jasoko dira; hartara, zerbitzu publikoak eman eta hobetzeari buruzko informazio garrantzitsua erauzi eta modu sistematikoan aztertu ahal izango da.

f) Los datos derivados del registro, clasificación y análisis de las quejas y sugerencias se integrarán en los informes periódicos de gestión regulados en el artículo 117 de forma que permita extraer y realizar un análisis sistemático de la información relevante sobre la prestación y mejora de los servicios públicos.

122. artikulua. Kexa eta iradokizunak aurkeztea eta izapidetzea postontzi elektronik orokorraren bidez.

Artículo 122. Presentación y tramitación de quejas y sugerencias en el buzón electrónico general.

1. Herritarrei arreta emateko organo eskudunak 120.4.a artikuluan araututako kexa eta iradokizunetarako formulario normalizatu bat izango du, euskarri guztietan, identifikatzeko beharrik ez dakarten kexa eta iradokizunak edozein kanaletatik aurkezteko; hala ere, ez da ezinbestekoa izango formulario hori erabiltzea eskubidea baliatzeko.

1. El órgano competente en atención a la ciudadanía dispondrá de un formulario normalizado para las quejas y sugerencias reguladas en el artículo 120.4.a. en todos los soportes necesarios para facilitar su presentación en todos los canales, pero no será requisito imprescindible para el ejercicio del derecho.

Kexa edo iradokizuna aurkeztu duenak egiaztagiri bat eskuratuko du, baldin eta aukeratu duen kanalak horretarako bidea ematen badu.

Las personas que formulen quejas y sugerencias obtendrán un justificante de su presentación, si lo posibilita el canal elegido.

2. Herritarrei arreta emateko arloaren eskumena duen administrazio-organismoak onartu eta izapidetuko ditu herritarrek aurkeztutako kexa eta iradokizunak.

2. Las quejas y sugerencias formuladas por la ciudadanía serán admitidas y tramitadas por el órgano administrativo competente en materia de atención a la ciudadanía.

3. Edozein bitartekoren bidez kexa edo iradokizun bat jasotzen duen administrazio-unitateak berehala helaraziko dio hura bere sailean, organismoan eta entean gobernantza publikoaz arduratzen den pertsonari –131. artikuluan arautua–, eta pertsona horrek kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboan sartuko du.

3. Cualquier unidad administrativa que reciba, por cualquier medio, una queja o sugerencia, la trasladará inmediatamente a la persona responsable en gobernanza pública de su departamento, organismo o ente regulada en el artículo 131, quien la incorporará al Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias.

4. Kexa edo iradokizuna jaso bezain laster –edozein dela ere erabili den kanala–, alta emango zaio kexa- eta iradokizun-sistema korporatiboan.

4. Recibida la queja o sugerencia por cualquier canal, se dará de alta de forma inmediata en el Sistema Corporativo de Quejas y Sugerencias.

5. Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzuak tipifikatuko du kexaren edo iradokizunaren sarrera, eta, hala dagokionean, hura kudeatzeaz arduratuko den unitatera bideratuko du. 10 egun balioduneko epea egongo da, postontzi elektronikoro orokorraren bidez jasotako kexa eta iradokizunei erantzuteko.
 6. Kexa eta iradokizunen erantzunak dena delako kexa edo iradokizuna aurkeztu zuen pertsonak adierazitako helbide elektronikora bidaliko dira.
 7. Zerbitzu-zuzendaritzak edo sail, organismo edo enteetako organo baliokideak izango dira Zuzenean–Herritarrentzako arreta-zerbitzuak eskalatzen dituen kexa eta iradokizunak kudeatu eta izapidetzeko unitate arduradunak, salbu eta lege- edo erregelamendu-arau batek beste unitate organiko bati esleitzen badio eskumen hori.
 8. Kexak edo iradokizunak espediente jakin batekin zerikusia badu, edo administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetu behar bada, espedientearen prozeduran eskumena duen administrazio-organismoak kexa edo iradokizuna eta txostena espedientearen barruan sartuko ditu, edo espediente berri bati alta emango dio, izapidetze elektronikorako plataforma komunean izapidetua izan dadin.
 9. Kexa edo iradokizuna aurkeztu zuenari erantzun arrazoitua eman behar zaio, honako hauek zehaztuta: egoeraren azalpena eta justifikazioa; planteatu diren eskari edo proposamenei erantzuteko egin diren jarduketak, hartu diren neurriak, edo etorkizunean hartuko direnak, edo, bestela, zergatik den ezinezkoa neurriak hartzea; horrez gainera, kexa edo iradokizuna aurkezteagatik zer eskubide eta eginbehar dagozkion ere jakinaraziko zaio pertsona horri.
 10. Kexa edo iradokizuna beste administrazio publiko baten eskumenekoa bada, sisteman alta emango zaio, administrazio eskudunari bidali, eta horren berri emango zaio kexa edo
5. El Servicio de Atención a la Ciudadanía, Zuzenean tipificará la entrada y, en los casos que corresponda, la canalizará, a la unidad responsable de su gestión. El plazo para responder las quejas y sugerencias recibidas en el buzón electrónico general será de 10 días hábiles.
 6. la respuesta a las sugerencias y quejas se remitirá, en su caso, a la dirección de correo electrónico suministrada por la persona que la formuló.
 7. Las Direcciones de Servicios u órganos equivalentes de los departamentos, organismos y entes serán las unidades responsables de la gestión y tramitación de las quejas y sugerencias escaladas por el Servicio de Atención a la Ciudadanía, Zuzenean, salvo que dicha competencia esté atribuida por norma legal o reglamentaria a otra unidad orgánica diferente.
 8. En el caso en el que la queja o sugerencia tenga relación con un expediente concreto, o deba tramitarse conforme a la legislación vigente sobre el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el órgano administrativo competente en el procedimiento del expediente incluirá la queja o sugerencia y el informe en el citado expediente o dará de alta un nuevo expediente para su tramitación en la Plataforma Común de Tramitación Electrónica.
 9. La respuesta a la persona que interpuso la queja o sugerencia deberá ser motivada y contendrá la descripción de la situación producida, su justificación, las actuaciones realizadas y las medidas adoptadas o que se vayan a adoptar para atender las demandas o las propuestas planteadas, o la imposibilidad de adoptar medidas, e informará de los derechos y deberes que asisten a quien hubiese formulado la queja o sugerencia.
 10. Cuando la queja o sugerencia sea competencia de otra Administración Pública, se dará de alta en el sistema, se remitirá a la administración

iradokizuna aurkeztu zuen pertsonari. Behin hori eginda, izapidea amaitutzat joko da.

11. Jarduera-arlo bakoitzean eskumena duen administrazio-organismoak honako kexa eta iradokizun hauek ez onartzea erabaki dezake:

- a) Uzirik ez badago.
- b) Funtsik ez badu, nabarmen.
- c) Emandako datuak okerrak edo faltsuak badira.
- d) Behin eta berriz aurkeztu bada.
- e) Aurretiaz aurkeztutako kexak edo iradokizunak ez baziren onartu funtsik ez zutelako edo datuak okerrak edo faltsuak zirelako.

Halakoetan, interesdunari horren berri emango zaio, eta espedientearen artxibatu egingo da.

12. Arau bidez ezarritako epea igaro eta ez bada Administrazioaren erantzunik jaso, interesdunak ikuskaritza-zerbitzura jo ahal izango du, jakiteko zergatik ez duen erantzunik jaso eta, hala badagokio, zerbitzu horrek organismo eskudunei proposa diezaien neurri egokiak hartzeko.

123. artikulua. Kexak aurkeztea eta izapidetzea erregistro elektronikoa orokorrean eta egoitza elektronikoa.

- 1. Herritarrek erregistro elektronikoa orokorrean eta egoitza elektronikoa aurkeztutako kexak onartu eta izapidetuko dituzte kexaren xede den gaian eskumena duen administrazio-organismoak.
- 2. Administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkideari buruz indarrean dauden legeen arabera izapidetuko dira, bai eta

competente y así se le comunicará a la persona que la presentó, dando por finalizado el trámite.

11. El órgano administrativo competente en cada área de actuación podrá inadmitir aquellas quejas y sugerencias en que se aprecie:

- a) Inexistencia de la pretensión.
- b) Falta absoluta de fundamento.
- c) Error o falsedad de los datos aportados.
- d) Formulación de modo reiterado.
- e) En caso de que las anteriores hubiesen sido desatendidas por carecer de fundamento o incurrir en error o falsedad.

En estos casos se notificarán estas circunstancias a la persona interesada y se archivará el expediente.

12. Si transcurrido el plazo normativamente establecido no se hubiese obtenido ninguna respuesta de la Administración, la persona interesada podrá dirigirse al Servicio de Inspección para informarse de los motivos de la falta de contestación y para que dicho Servicio proponga, en su caso, a los órganos competentes la adopción de las medidas que considere oportunas.

Artículo 123. Presentación y tramitación de quejas en el registro electrónico general y sede electrónica.

- 1. Las quejas formuladas por la ciudadanía en el registro electrónico general y sede electrónica serán admitidas y tramitadas por el órgano administrativo competente en la materia objeto de la queja.
- 2. Se tramitarán conforme a la legislación vigente sobre el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y lo que determine la normativa específica vigente.

indarrean dagoen araudi espezifikoak ezarritakoaren arabera ere.

3. Informazio irisgarria izateko eskabideak eta gailu mugikorretarako aplikazioen eta webguneen irisgarritasunari buruzko kexak izapidetzeko, Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuari jarraituko zaie; berdin jokatuko da informazio irisgarria izateko eskabideari edo kexari erantzun ez zaiolako edo hura ezetsi delako abiarazten den erreklamazio izapidearen kasuan ere.
4. Administrazio-prozeduraren mende dauden eta identitatea akreditatu beharra dakarten kexa eta iradokizunei erantzuteko epea araudi espezifikoan adierazten dena izango da edo, bestela, administrazio-prozedura erkideari buruz indarrean dauden legeek xedatzen dutena.
5. Administrazio-prozeduraren mende dauden kexa eta iradokizunen erantzunak, berriz, interesdunak aukeratu duen bitartekoa erabiliz bidaliko dira, administrazio-prozedura erregulatzen duen araudiaren arabera, non eta pertsona hori ez dagoen behartuta Administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera, indarrean dagoen araudiaren arabera.
3. Las solicitudes de información accesible y quejas sobre accesibilidad de sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles se tramitarán, además, conforme al Real Decreto 1112/2018, de 7 de septiembre, sobre accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles del sector público, incluyendo el trámite de reclamación en caso de no respuesta o desestimación de la solicitud de información accesible o queja.
4. El plazo para responder las quejas y sugerencias sometidas a procedimiento administrativo y que requieren acreditación de la identificación será el que determine su normativa específica o, en su caso en la legislación vigente sobre el Procedimiento Administrativo Común.
5. En el caso de quejas y sugerencias sometidas a procedimiento administrativo, la respuesta se remitirá a la persona interesada por el medio elegido, según la normativa reguladora del procedimiento administrativo, salvo que esté obligada a relacionarse a través de medios electrónicos de conformidad con la normativa vigente.

III. KAPITULUA. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIO-TRESNAK

124. artikulua. Interneteko presentzia-eredua antolatzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan komunikazio-arloko eskumenak dituen organoari eginkizun hauek dagozkio:
 - a) EAEk Interneten izan behar duen irudi instituzionalaren estrategia zehaztea.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren informazio- eta komunikazio-

CAPÍTULO III. ORGANIZACIÓN E INSTRUMENTOS DE COORDINACIÓN

Artículo 124. Organización del modelo de presencia en Internet.

1. Corresponde al órgano competente en materia de comunicación de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi las funciones siguientes:
 - a) Definir una estrategia de imagen institucional de Euskadi en Internet.
 - b) Establecer, diseñar y dirigir la política informativa y de comunicación de la

politika ezarri, diseinatu eta zuzentzea Internet bidez. Beharrezkotzat jotzen diren irizpideak eta mekanismoak ezarriko dira, «euskadi.eus» sarearen atarietan politika horren koordinazioa ziurtatuko dutenak.

- c) EAEren historia, kultura, hizkuntza, erakundeak, gizartea, politika, ekonomia eta bestelakoak aurkezteko irizpideak ezarri eta edukiak diseinatzea eta, hala behar bada, gertatzea.
